

XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5060

373/2013 DEKRETUA, uztailaren 2koa, Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikari-titulua ezartzen duena.

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 10.1 artikulua ezartzen duenez, Estatuko Administrazio Orokorra finkatuko ditu Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalan aditzera emandako lanbide-prestakuntzako eskaintzak osatuko dituzten profesionaltasun-ziurtagiriak eta -tituluak, betiere Konstituzioaren 149.1.30 eta 7. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Lanbide Heziketaren Kontseilu Nagusiari kontsultatu ondoren.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 39.6 artikulua xedatzen duenez, Espainiako Gobernuak, autonomia-erkidegoei kontsultatu ostean, Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien titulazioak ezarriko ditu, baita titulazio horietako bakoitzaren curriculumaren oinarriko alderdiak ere.

Ekonomia iraunkorraren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak eta Ekonomia iraunkorraren Legea osatzen duen martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoak –Lanbide Heziketaren eta kualifikazioen 5/2002 Lege Organikoa eta Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa aldatzen dituenak–, hainbat lege-aldaketa adierazgarri eragin dituzte bestelako ekonomia baten garapena sustatzeko eta bizkortzeko, hau da, ekonomia lehiakorragoa eta berritzaileagoa, produkzio-sektore tradizionalak berritzeko gauza izango dena eta kalitateko enplegu egonkorra eskatzen duten beste jardura batzuetarantz bidea egiteko gauza izango dena sustatzeko eta bizkortzeko.

Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren 9. artikuluan definitzen da lanbide-heziketako tituluen egitura. Horretarako, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europar Batasunak finkatutako jarraibideak, eta gizarte-intereseko beste alderdi batzuk hartu dira kontuan.

7. artikulua titulu horien lanbide-profila zehazten du. Lanbide-profil horretan sartuko dira konpetentzia orokorra, lanbide-konpetentzia, konpetentzia pertsonalak eta sozialak eta, hala badagokio, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren konpetentzia-atalak. Horrenbestez, titulu bakoitzak lanbide-kualifikazio oso bat, gutxienez, hartuko du barnean, betiere Lanbide Heziketako tituluek produkzio-sistemaren beharrei eta hiritartasun demokratikoa egikaritzeko aukera emango duten balio pertsonal eta sozialei eraginkortasunez erantzuteko.

Azaroaren 18ko 1684/2011 Errege Dekretuak Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren titulua ezartzen du eta haren gutxieneko irakaskuntzak zehazten ditu. Dekretu horrek ordeztu egiten ditu abenduaren 22ko 2058/1995 Errege Dekretua, Animazio soziokulturaleko goi-mailako teknikariaren titulua arautzen zuena, eta otsailaren 25eko 274/2000 Errege Dekretua, Animazio turistikoko goi-mailako teknikariaren titulua arautzen zuena.

Bestetik, Hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen aurrez aipatutako 1147/2011 Errege Dekretuaren 8.2 artikulua xedatzen duenez, hezkuntza-administrazioek ezarriko dituzte Lanbide Heziketako irakaskuntzen curriculumak. Edonola ere, errege dekretu horretan bertan xedatutakoa eta titulu bakoitza erregulatzen duten arauetan xedatutakoa errespetatu beharko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko eskumenen esparruari dagokionez, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluan aditzera ematen denez, «Konstituzioaren lehen erabaki gehigarrian

ezarritakoa aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Autonomia Erkidegoaren konpetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoari eta hura garatzen duten Lege Organikoei, eta 140.1.30 artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori guztia betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektioari kalterik egin gabe».

Bestalde, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak, hezkuntza-sistemaren barruan, Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Azaldutako aurrekarien arabera, dekretu honen helburua da Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculumak ezartzea Euskal Autonomia Erkidegoan, betiere Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren titulua ezartzen duen eta tituluaren gutxieneko irakaskuntzak finkatzen dituen azaroaren 18ko 1684/2011 Errege Dekretuaren babesean.

Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluaren curriculumean alderdi hauek deskribatzen dira: alde batetik, tituluak adierazten duen lanbide-profila (kualifikazioak eta konpetentzia-atalak zerrendatzen dira, eta konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialek deskribatzen dira); eta, bestetik, tituluak biltzen dituen helburu orokorren eta lanbide-modulu bidez, besteak beste, ezarritako irakaskuntzak (lanbide-modulu bakoitzari dagozkion ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak eta edukiak, eta horiek antolatu eta ezartzeko jarraibideak eta zehaztapenak barne hartuta).

Helburu orokorrak profilean deskribatzen diren konpetentzia profesional, pertsonal eta soziale-tatik atera dira. Haietan, ikasleak heziketa-zikloaren amaieran eskuratu behar dituen gaitasunak eta lorpenak adierazten dira; hortaz, heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluetako bakoitzean landu beharreko edukiak eta ikasleak bereganatu behar dituen ikaskuntzaren emaitzak lortzeko lehen iturria dira.

Modulu bakoitzean jasotako edukiak irakatsi eta ikasteko prozesuaren euskarria dira; ikasleak trebetasun eta abilezia teknikoak, etorkizun profesionalean aurrera egiteko kontzeptuzko oinarri zabala eta lortu nahi den kualifikazioarekiko lanbide-nortasun koherentea islatuko duten portaerak eskura ditzen.

Honako dekretu hau bideratzean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulutik 22. artikulura bitartean aurreikusten diren izapideak bete dira.

Ondorioz, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluak emandako txostena eta gainerako aginduzko txostenak aztertuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren arabera, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko uztailaren 2an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRA

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Dekretu honek Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluari dagozkion Lanbide Heziketako irakaskuntzetarako curriculumak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan.

2.– Ikastetxeak duen autonomia pedagogikoaren eta antolamendukoaren ildotik, hari dagokio bere Ikastetxearen Ikasketa Proiektua ezartzea, eta proiektu horretan ezarriko ditu bere irakas-kuntza-lanaren ezaugarriak eta nortasuna zehazteko, eta lanbide-moduluaren programazioak prestatzeari buruzko irizpideak finkatzeko beharrezko erabakiak.

3.– Ikastetxearen Ikasketa Proiektuaren esparruan, heziketa-zikloaren ardura duen irakasle taldeari eta, zehazki, irakasle bakoitzari dagokio programazioak prestatzea. Horretarako, ezar-tzen diren helburu orokorrak kontuan izan beharko ditu, lanbide-modulu bakoitzean bildutako ikaskuntzaren emaitzak eta edukiak errespetatu beharko ditu, eta irakaskuntzen erreferentziatzko lanbide-profila hartu beharko du euskarri.

II. KAPITULUA

TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA ETA LANBIDE PROFILA

2. artikulua.– Tituluaren identifikazioa.

Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek iden-tifikatzen dute:

- Izena: Animazio soziokulturala eta turistikoa.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mai-lako teknikaria.

3. artikulua.– Lanbide-profila.

1.– Titulu honen konpetentzia orokorra da animazio soziokulturaleko eta turistikoko jardunak programatzea, antolatzea, osatzea eta ebaluatzea, pertsona eta talde hartzaileen parte-hartze aktiboa sustatuta eta bere kargura dauden profesionalen eta boluntarioen jardunak koordinatuta.

2.– Konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak.

Honako hauek dira titulu honen konpetentzia profesionalak, pertsonalak eta sozialak:

- a) Informazioa eskuratzea, errealitatea aztertzekeo baliabideak, estrategiak eta tresnak erabilia, hartzaileen beharrei eta testuinguruaren beharrei egokitzeko esku-hartze soziokulturala.
- b) Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak egitea testuingurutik eta hartzaileetatik eskuratutako informazioa oinarri hartuta, genero-ikuspegia txertatuz.
- c) Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak ezartzeko modua zuzentzea, bere kargura dauden profesionalen eta boluntarioen jardunak koordinatuz, jarduerak kalitate-irizpideekin egiten diren gainbegiratzuz eta talde-lana erraztuz.
- d) Esku-hartze soziokulturaleko proiektuak sustatu eta hedatzeko espazioak, estrategiak eta materialak diseinatzea, komunikazioaren arloko aurrerapen teknologikoak aplikatuz.

- e) Animazio soziokulturaleko eta turistikoko sail, programa eta jarduerak antolatzea, dokumentazioa eta baliabideak kudeatuz, baita esleitutako aurrekontuaren kontrol eta finantzaketa ere.
- f) Begirale-taldeak sortu, dinamizatu eta gainbegiratzea esku-hartze soziokulturaleko proiektuetan, jardueren arabera antolatuz.
- g) Jarduera ludikoak, kulturalak, fisikoak eta olgetakoak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, metodologia-estrategiak hautatuz, baliabideak antolatuz eta jarduera garatzeko behar diren ekipo eta bitarteko teknikoak erabiliz.
- h) Talde eta elkarteak eratu eta abiarazteko laguntza teknikoa, dokumentuzkoa eta logistikoa ematea, partaideak autokudeaketa-arloan trebatuz eta gizarte-eragileen arteko harremanak erraztuz.
- i) Gazteentzako informazio-zerbitzuak antolatu eta kudeatzea, sektore horretako pertsonen beharrez eta eskariei erantzun dieten orientazio-, informazio- eta dinamizazio-jarduerak eginez.
- j) Gazteentzako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, aukera-berdintasuna erraztuz eta hezkuntza ez-formalaren printzipioak aplikatuz.
- k) Taldeak dinamizatzea, parte hartzeko eta dinamizatzeko teknikak aplikatuz, gatazkak kudeatuz eta errespetua eta elkartasuna sustatuz.
- l) Istripuetan edo larrialdietan, lehen laguntzen arlorako ezarrita dauden protokoloak aplikatzea.
- m) Jarrera autokritikoarekin egitea esku-hartzearen kontrol eta jarraipena, antzemandako desbideratzeak zuzentzeko atzeraelikadura-prozedurak eta kalitate-irizpideak aplikatuz.
- n) Egin litezkeen eskaera, iradokizun eta erreklamazioei erantzutea, asmoak bete eta gogobetetzea lortzeko, atzerriko hizkuntza erabil daitekeela.
- ñ) Laneko egoera berrietara egokitzea, egunean izanda lanbide-ingurunearen gaineko ezagutza zientifikoak, teknikoak eta teknologikoak, prestakuntza eta dauden baliabideak bizitza osoko ikaskuntzan kudeatuta, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabilia.
- o) Egoerak, arazoak eta gorabeherak konpontzea, ekimenez eta autonomiaz dagokion esku-eremuan, eta sormenez, berrikuntzaz eta hobetzeko gogoz norberaren eta lantaldearen zereginetan.
- p) Lantaldeak arduraz antolatu eta koordinatzea, haien garapena gainbegiratzuz, harreman onak izanez, lidergoa hartuz, eta lantaldean sortzen diren gatazkak konpontzeko aterabideak proposatuz.
- q) Parekoekin, nagusiekin, bezeroekin eta bere ardurapeko pertsonekin komunikatzea, komunikazio-bide eraginkorrak erabiliz, informazioa edo ezagupen egokiak emanez, eta dagokion lan-eremuan parte hartzen duten lagunen autonomia eta eskumenak errespetatuz.
- r) Norberaren eta lantaldearen lan-garapenean ingurune seguruak sortzea, laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentziorako prozedurak gainbegiratzuz eta aplikatuz, betiere enpresaren arautegian eta helburuetan ezarritakoarekin bat etorritz.
- s) Produkzioko edo zerbitzugintzako prozesuetan bildutako lanbide-jardueretan, kalitate-prozedurak, irisgarritasun unibertsalekoak eta «denontzako diseinukoak» gainbegiratzea eta aplikatzea.
- t) Enpresa txiki bat sortu eta abiarazteko oinarrizko kudeaketa egitea, eta dagokion lanbide-jardueran ekimena izatea erantzukizun sozialez jokatuta.

u) Dagokion jardueraren ondoriozko eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera, eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean aktiboki parte hartuz.

3.– Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta kompetentzia-atalen zerrenda:

– Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Gizarte-dinamizazioa. SSC321_3 (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:

UC1020_3: gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariek eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta.

UC1021_3: gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan hiritarren parte-hartzea sustatzea.

UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta hiritarrek parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea.

UC1023_3: elkarre-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea.

UC1024_3: gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea.

UC1025_3: gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzean, bitartekaritza-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.

UC1026_3: generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.

b) Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak zuzentzea eta koordinatzea. SSC565_3 (567/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:

UC1867_2: talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.

UC1868_2: aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.

UC1869_3: hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.

UC1870_3: begirale-taldeak sortzea, eta haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea.

c) Kultura-ekintzak dinamizatzea, programatzea eta garatzea. SSC445_3 (1096/2011 Errege Dekretua, uztailaren 22koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:

UC1431_3: kultura-arloko arduradunek egindako kultura-programazioak programatzea, garatzea eta ebaluatzea.

UC1432_3: kultura-elkarteen sareekin programatzea eta dinamizatzea kultura-animazioko proiektuak.

UC1433_3: kultura-komunikazioko eta marketineko ekintzak garatzea.

d) Gazte-informazioa. SSC567_3 (567/2011 Errege Dekretua, apirilaren 20koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:

UC1874_3: gazteentzako informazio interesgarriko zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea.

UC1875_3: gazteentzako informazioa dinamizatzeko ekintzak antolatzea eta kudeatzea.

UC1023_3: elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea.

UC1876_3: hezkuntza ez-formalaren esparruan, gazteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-ekintzak antolatzea.

– Osatu gabeko lanbide-kualifikazioak:

a) Animazio turistikoa. HOT329_3 (1700/2007 Errege Dekretua, abenduaren 14koa). Konpetentzia-atal hauek biltzen ditu:

UC1091_3: animazio turistikoko sailak kudeatzea.

UC1092_3: animazio turistikoko proiektuak diseinatzea, sustatzea eta ebaluatzea.

UC1093_3: aisialdiko egoeretan, taldeak sortzea eta dinamizatzea.

4. artikulua.– Lanbide-ingurunea.

1.– Lanbide-figura hori duten pertsonak sektore hauetan egiten dute lan: gizartearentzako zerbitzuen sektorean (gizarte-garapena eta gazte-informazioa), kultura-zerbitzuen sektorean (irakurketa eta informazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, eta askotariko kultura-baliabideak eta -produktuak), zerbitzu turistikoen sektorean, eta aisialdiko eta denbora libreko sektorean (olgeta- eta kirol-jarduerak, ingurumen-jarduerak eta aisialdiko jarduerak).

2.– Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko koordinatzailea.

Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko zuzendaria.

Haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko proiektuen arduraduna.

Kanpalekuen, gazte-aterpeen, kolonia-etxeen, abeletxe-eskolen, gaztelekuetako gelen eta natura-eskolen koordinatzailea.

Kanpalekuen, gazte-aterpeen, kolonia-etxeen, abeletxe-eskolen, gaztelekuetako gelen eta natura-eskolen zuzendaria.

Aisialdiko begiralea.

Animatzaile soziokulturala.

Gizarte-dinamizatzailea.

Elkarte-sektorerako aholkularia.

Gizarte-teknikaria.

Elkarteen kudeatzailea.

Kultura-zerbitzuetako teknikaria.

Kultura-animatzailea.

Gazte-informatzailea.

Hoteleko animatzailea.

Ikuskizunetako eta gau-jaietako animatzailea.

Turismo konplexuetako aire zabaleko olgeta-jardueren animatzailea.

Turismo-animazioko saileko burua.

III. KAPITULUA

HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK, ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK, ETA IRAKASLEAK

5. artikulua.– Heziketa-zikloaren irakasgaiak.

1.– Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

a) Errealitatea aztertzeko baliabideak, estrategiak eta tresnak hautatzea, eta horien ezaugarriak, aukerak eta mugak aztertzea, betiere pertsona hartzaileen beharrei eta jardungo den testuinguruaren beharrei buruzko informazioa lortzeko.

b) Plangintzako prozedurak aplikatzea, eta haren elementuak errealitatearen analisitik lortutako informazioarekin lotzea, jardun soziokulturaleko proiektuak lantzeko.

c) Aukera-berdintasunaren lege- eta gizarte-esparrua interpretatzea eta horretarako irizpideak, estrategiak eta tresnak identifikatzea, jardun soziokulturaleko proiektuetan generoaren ikuspegia txertatzeko.

d) Lan-taldeko kideei eskatzen zaizkien kompetentziak aztertzea eta jardunaren testuingurua eta ezarritako kalitate-irizpideak aztertzea, jardun-proiektuen ezarpena zuzentzeko, koordinatzeko eta gainbegiratzeko.

e) Espazioak, estrategiak eta materialak hautatzea, komunikazioaren arloko aurrerapen teknologikoen aukerak aztertuta, esku hartzeko proiektuen sustapena eta hedapena diseinatzeko.

f) Kudeaketa-teknikak aplikatzea, eta, horretarako, beharrezko baliabideak, finantziatio-iturriak eta aurrekontu-kontrolarekin lotzen den dokumentazioa aztertzea, animazio soziokulturaleko eta turistikoko sailak, programak eta jarduerak antolatzeko.

g) Talde-teknikak hautatzea, aplikatzeko aukerak aztertuta, begirale-taldeak sortzeko, dinamizatze eta gainbegiratzeko.

h) Lan-taldearen ezaugarriak eta osaera aztertzea, eta antolamendu-egitura eta egitura funtzionala ezartzeko egin beharreko jarduerekin lotzea.

i) Esku-hartzearen helburuak eta pertsona hartzaileen eta testuinguruaren ezaugarriak aztertu ostean, baliabide eta estrategia metodologikoak hautatzea betiere jarduera ludikoak, kulturalak, fisikoak eta olgetakoak diseinatzeko, osatzeko eta ebaluatzeko.

j) Argiztapeneko eta soinu oinarritzko tresneria maneiatzea, baita jarduera soziokulturalak eta turistikoak garatzeko beharrezko bitarteko eta baliabide informatikoak, ikus-entzunezkoak eta teknikoak ere.

k) Gizarte-garapeneko prozesuak eta estrategiak interpretatzea, legezko esparrua eta eskura dauden baliabideak aztertuta, betiere gizarte-eragileei laguntza teknikoa, dokumentuzkoa eta logistikoa emateko eta haien arteko harremanak eta autokudeaketa errazteko.

- l) Gazteentzako informazio-zerbitzuen xedea eta eginkizunak aztertzea –zerbitzua antolatzeko eta kudeatzeko–, eta orientazio, informazio eta dinamizazioko jarduerak egitea.
- m) Estrategiak, teknikak, tresnak eta baliabideak hautatzea, hezkuntza ez-formalaren printzipioak aztertuta, betiere gazteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-jarduerak diseinatzeko, osatzeko eta ebaluatzeko.
- n) Parte hartzeko eta dinamizatzeko teknikak hautatzea eta gatazka-sorburuak aztertzea –taldeak dinamizatzeko–, errespetua eta elkartasuna sustatuta.
- ñ) Istripuetan edo larrialdietan jarduteko protokoloak deskribatzea, lehen laguntzak aplikatzeko teknika egokiak hautatuta.
- o) Ebaluazio-teknikak eta -tresnak hautatzea eta, horretarako, plangintzan ezarritako kalitate-adierazleak eta irizpideak aztertzea, baita prozesuarekin lotzen den dokumentazioa ere, esku-hartzea kontrolatzeko, jarraipena egiteko eta atzeraelikatzeke.
- p) Bezeroen balizko demanden aurrean jarduteko protokoloak aztertzea eta kasuak kasuko ezaugarriak identifikatzea, balizko eskaerei, iradokizunei eta erreklamazioei erantzun ahal izateko, hala badagokio gutxienez atzerriko hizkuntza bat erabiliz.
- q) Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
- r) Sormena eta berrikuntzako izpiritua garatzea lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
- s) Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, inplikaturako aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabehereri aurre egiteko eta horiek ebazteko.
- t) Gidaritza, motibazio, gainbegiratze eta komunikazioko teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lan-taldean antolamendua eta koordinazioa errazteko.
- u) Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta har-tzaileen ezaugarrietara egokituta; prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.
- v) Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzekoa den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko.
- w) Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren lan-bide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.
- x) Kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko.
- y) Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlacionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.

z) Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

2.– Honakoa da heziketa-zikloa osatzen duten lanbide-moduluen zerrenda:

- a) Lehen laguntzak.
- b) Ingelesa.
- c) Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak.
- d) Talde-dinamizazioa.
- e) Kultura-animazioa eta -kudeaketa.
- f) Animazio turistikoa.
- g) Gizartean parte hartzeko metodologia.
- h) Gizarte-garapena.
- i) Gazteentzako informazioa.
- j) Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin.
- k) Animazio soziokulturalaren testuingurua.
- l) Animazio soziokulturaleko eta turistikoko proiektua.
- m) Laneko prestakuntza eta orientabidea.
- n) Enpresa eta ekimen sortzailea.
- n) Lantokiko prestakuntza.

I. eranskinean zehaztu da lanbide-moduluen ordu-esleipena eta lanbide-moduluak zein kurtso-tan eman beharko diren.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu ditzakeen heziketa-eskaintzen araberako egokitu ahal izango da moduluen ordu-esleipena eta moduluak zein kurtso-tan emango diren, dekretu honen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat eginik.

3.– Lanbide-modulu bakoitzerako, ikaskuntzaren emaitzak (prestakuntzaldia amaitzean ikasleak jakin, ulertu eta egin dezan espero dena deskribatzen dutenak), eta ebaluazio-irizpideak eta eman beharreko edukiak ezartzen dira. II. eranskinean ezarri da hori guztia.

4.– Lantokiko prestakuntzako modulua, bestalde, bigarren kurtso azken hamahiru asteetan garatuko da, eta ikastetxean egindako lanbide-modulu guztien ebaluazio positiboa lortu ondoren egingo da.

6. artikulua.– Espazioak eta ekipamenduak.

Prestakuntza garatzeko, eta ezarritako emaitzak eta kompetentziak lortzeko gutxienezko espazioak eta ekipamenduak III. eranskinean zehaztu dira.

7. artikulua.– Irakasleak.

1.– Heziketa-zikloko lanbide-modulu bakoitzerako irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena IV. eranskinaren 1. atalean ezarri dira.

2.– Irakaskuntza-kidegoetako irakasleei oro har eskatzen zaizkien titulazioak otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak dira. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena. Irakasleen espezialitateetarako 1. paragrafoan adierazten diren titulazio baliokideak (irakaskuntzaren ondorioetarako) IV. eranskinaren 2. atalean jaso dira.

3.– Irakasle espezialistek eskumena izango dute dekretu honen IV. eranskineko 1. atalean zehaztutako lanbide-moduluak irakasteko.

4.– Irakasle espezialistek otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak bete behar dituzte irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko. Izan ere, Errege Dekretu horrek onartzen du Hezkuntzako maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren irakasle-kidegoetako espezialitate berrietan sartzeko eta eskuratzeko araudia, eta arautzen du Lege horren hamazazpigarren xedapen iragankorrean adierazten den sarrerako aldi baterako erregimena.

5.– Gainera, lanbide-moduluaren barnean sartutako prozesuen beharrei erantzuten zaiela bermatzeko, irakasle espezialistek, izendapen bakoitzaren hasieran, dagokien lan-esparruan ezagututako lanbide-esperientzia egiaztatu beharko dute, behar bezala eguneratua. Izan ere, izendapenaren aurre-aurreko lau urteetan gutxienez bi urteko lanbide-jarduna frogatu beharko dute.

6.– Hezkuntzakoaz bestelako administrazioetan barnean hartuta dauden titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko ikastetxeetako irakasleentzat, titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak eta eskakizunak Dekretu honen IV. eranskinaren 3. atalean eman dira aditzera. Nolanahi ere, aditzera emandako titulazio horiek lortzeko irakaskuntzek lanbide-moduluaren helburuak bete beharko dituzte. Helburu horiek barnean hartuta ez badaude, titulazioaz gain, lanbide-arlo horrekin lotzen den sektorean gutxienez hiru urteko lan-esperientzia frogatu beharko da «ziurtagiri» bidez –irakaskuntzaren emaitzekin inplizituki lotzen diren enpresetan produkzio-jarduerak garatzen hiru urteko esperientzia frogatu beharko du ziurtagiriak–.

IV. KAPITULUA

BESTE IKASKETA BATZUETARAKO SARBIDEAK ETA LOTURA. BALIOZKOTZEAK, SALBUESPENAK ETA EGOKITASUNAK. BALIOKIDETASUNAK, ETA ONDORIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK. URRUTIKO ESKAINTZA ETA BESTELAKO MODALITATEAK

8. artikulua.– Prestakuntza-ziklo honetara sartzeko lehentasuna, batxilergoan ikasitako modalitateak eta ikasgaiak aintzat hartuta.

Prestakuntza-ziklo honetara sartzeko lehentasuna izango dute batxilergoan Giza eta Gizarte Zientziak modalitatea ikasi dutenek.

9. artikulua.– Beste ikasketa batzuetarako sarbideak eta lotura.

1.– Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluak aukera ematen du goi-mailako edozein heziketa-ziklotara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

2.– Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluak aukera ematen du graduko unibertsitate-tituluak eskuratzeko ikasketetara zuzenean sartzeko, betiere horretarako ezartzen diren onarpen-baldintzetan.

3.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baliozkotze-araubidea ezarriko du Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikari-titulua dutenen eta horrekin lotutako graduko unibertsitate-titulua dutenen artean. Baliozkotze-araubidea errazteko asmoz, dekretu honetan ezarritako irakasgaietan 120 ECTS kreditu esleitu dira prestakuntza-ziklo honetako lanbide-moduluen artean.

10. artikulua.– Baliozkotzeak, salbuespenak eta egokitasunak.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua edo Enpresa eta ekimen sortzailea modulua gaindituta dituenak modulu horiek baliozkotuta izango ditu lege horren babespeko beste edozein ziklotan.

2.– Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean ezarritako lanbide-moduluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean ezarritakoen arteko baliozkotzeak V. eranskinean adierazten dira.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan hezkuntza-sistemako lanbide-heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lantokiko prestakuntza lanbide-modulua osorik edo zati batean salbuestea erabaki ahal izango da, baldin eta heziketa-ziklo honekin lotutako lan-esperientzia egiaztatzen bada, artikulua horretan jasotako baldintzen arabera.

4.– Laneko esperientziaren bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak aintzat hartzeko uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren bitartez, titulu honetan barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak egiaztatu dituztenek Laneko prestakuntza eta orientabidea modulua baliozkotzea eskatu ahal izango dute, baldin eta:

– Urtebeteko lan-esperientzia, gutxienez, egiaztatzen badute.

– Jarduera prebentiboaren oinarrizko funtzioak betetzeko ezarritako prestakuntzaren egiaztatzea badute –Prebentzio-zerbitzuen erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera emandako egiaztatzea izango da–.

5.– Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluaren irakaskuntzako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek baliozkotzeko edo salbuesteko– eta titulu honetako lanbide-moduluen eta kompetentzia-atalen arteko egokitasuna –horiek egiaztatzeko– VI. eranskinean jasotzen dira.

11. artikulua.– Urrutiko eskaintza eta bestelako modalitateak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu egingo ditu ziklo honetako irakaskuntzak eskaini ahal izateko baimena eta eskaintza horren oinarrizko alderdiak (hala nola moduluen iraupena eta sekuentziarioa), araubide orokorrean ezarritakoaz bestelako eskaintza osoaren modalitatean eta urrutiko irakaskuntzan edo beste modalitate batzuetan.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Titulazio baliokideak eta lanbide-trebakuntzekiko lotespena.

1.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Hezkuntzari eta Hezkuntzako Erreforma Finantzatzeari buruzko abuztuaren 4ko 14/1970 Lege Orokorreko teknikari espezialistaren tituluak azaroaren 18ko 1684/2011 Errege Dekretuan ezarritako Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluaren ondorio profesional berberak izango dituzte. Hona aipatutako tituluak:

Gizarte- eta kultura-jardueretako teknikari espezialista, Administrazioa eta Merkataritza adarra.

Bidaia-agentzietako teknikari espezialista, Ostalaritza eta Turismoa adarra.

2.– Abenduaren 22ko 2058/1995 Errege Dekretuak ezarritako Animazio soziokulturaleko goi-mailako teknikariaren tituluak, otsailaren 25eko 274/2000 Errege Dekretuak ezartzen duen Animazio turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluak eta azaroaren 18ko 1684/2011 Errege Dekretuan ezarritako dagoen Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren tituluak ondorio profesional eta akademiko berberak izango dituzte.

3.– Laneko prestakuntza eta orientabidea lanbide-modulurako dekretu honetan ezarritako prestakuntzak trebatu egiten du laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako jardueretarako urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan ezarritako lanbide-erantzukizunez arduratzeko, baldin eta gutxienez 45 eskola-ordu ematen badira. Errege-dekretu horrek prebentzio-zerbitzuen araudia onartzen du.

4.– Dekretu honen lanbide-moduluetan ezarritako prestakuntzak bermatu egiten du haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko zuzendariaren/koordinatzailearen diplometan eskatutako jakintza-maila, autonomia-erkidego ezberdinetan aisialdiko jarduerak egiteko eskatzen diren titulazio-betekizunak betetzearren.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aukera izango du dekretu honen I. eranskinean ezarritakoak bestelako iraupena duten proiektuak baimentzeko, baldin eta moduluen kurtsokako banaketa aldatzen ez bada eta titulua sortzeko errege-dekretuan modulu bakoitzari esleitutako gutxieneko orduak errespetatzen badira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

UZTAILAREN 2KO 373/2013 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

LANBIDE MODULUEN ZERRENDA, ORDU ESLEIPENA ETA KURTSOA

Kodea	Lanbide Modulua	Ordu esleipena	Kurtsoa
0020	1.– Lehen laguntzak	66	1.a
0179	2.– Ingelesa	165	1.a
1123	3.– Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	132	1.a
1124	4.– Talde-dinamizazioa	132	1.a
1125	5.– Kultura-animazioa eta -kudeaketa	200	2.a
1126	6.– Animazio turistikoa	140	2.a
0344	7.– Gizartean parte hartzeko metodologia	132	1.a
1128	8.– Gizarte-garapena	132	1.a
1129	9.– Gazteentzako informazioa	100	2.a
1130	10. –Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin	100	2.a
1131	11. –Animazio soziokulturalaren testuingurua	132	1.a
1132	12.– Animazio soziokulturaleko eta turistikoko proiektua	50	2.a
1133	13.– Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1.a
1134	14.– Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2.a
1135	15.– Lantokiko prestakuntza	360	2.a
	Zikloa, guztira	2.000	

UZTAILAREN 2KO 373/2013 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LANBIDE MODULUAK: IKASKUNTZAREN EMAITZAK,
EBALUAZIO IRIZPIDEAK ETA EDUKIAK

1. lanbide-modulua: Lehen laguntzak.

Kodea: 0020.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 66 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 3.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.

b) Istripua izan duten pertsonak manipulatzeari norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.

c) Larrialdietako botikinaren gutxienezko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatu ditu.

d) Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.

e) Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzekeko prozedurak deskribatu ditu.

f) Aireztatzeko/oxigenatzeko funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.

g) Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.

h) Konorte-maila egiaztatzekeko prozedurak deskribatu ditu.

i) Bizi-konstanteak hartu ditu.

j) Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatu du.

2.– Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.

b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.

c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.

d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.

e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.

f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.

g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.

h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.

i) Premiazko patologia organikoen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.

j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3.– Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.

b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.

c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.

d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.

e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin.

f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4.– Istripua izan duenari eta familiei zein laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrol-koa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.

b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.

c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.

d) Istripua izan duen pertsonari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.

e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.

f) Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoera bat kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.

g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.

h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

B) Edukiak:

1.– Larrialdietako laguntzaren hasierako balorazioa.

Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea.

Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea.

Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea.

Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta jardun-lehentasunak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea.

Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzeko. Bizi-konstanteak hartzea.

Adibidez, bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) ezarritako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatzea.

Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.

Larrialdietarako sistemak.

Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak).

Istripuak. Motak eta ondorioak.

Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak.

Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak.

Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak. Triage sinpleko metodoak.

Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zeinuak pertsona helduarengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zeinuak eta -sintomak.

Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea.

Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala.

Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipoak.

Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.

Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea.

Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

Bere jardunaren mugez jabetzea.

2.– Bizi-euskarriko teknikak aplikatzea.

Bizi-arriskuko egoerak aztertzea.

Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea.

Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea.

Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako ezarritako jardun-protokoloekin lotzea.

Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea.

Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea.

Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea.

Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea.

Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea.

Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea.

Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.

Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentze lanak.

Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin.

Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Tresnerien funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeria. Egiaztapena.

Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-zeinuak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak.

Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak).

Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan.

Hasierako arreta premiazko patologia organikoan.

Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea.

Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.

Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.

Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.

Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan.

Bere jardunaren mugez jabetzea.

3.– Immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzea.

Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea.

Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea.

Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak).

Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Indikazioak. Motak. Materialak. Ohatilak. Ondorioak.

Lekualdatzeko beharra ebaluatzea.

Segurtasun- eta itzarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Indikazioak.

Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak.

Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.

Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.

Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko araei zorrotz jarraitzea.

Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

4.– Laguntza psikologikoa eta autokontrolak emateko teknikak aplikatzea.

Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea.

Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarritzko teknikak aplikatzea.

Autokontrolak eta hutsegitea edo adorea falta gainditzeko teknikak aplikatzea.

Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak identifikatzea.

Oinarritzko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak.

Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen eginkizuna baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak.

Laguntza psikologikorako oinarritzko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.

Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa.

Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena.

Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.

2. lanbide-modulua: Ingelesa.

Kodea: 0179.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 165 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 7.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Edozein komunikazio-bitarteko bidez hizkuntza estandarrean egindako orotariko ahozko diskurtsoetan bildutako informazio profesionala eta egunerokoa ezagutzen du, eta mezuaren edukia interpretatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mezuaren ideia nagusia identifikatu du.
- b) Hizkuntza estandarrean ahoskatutako irrati bidezko mezuen helburua eta bestelako material grabatuaren edo erretransmitituaren helburua ezagutu du, eta hiztunaren aldartea eta tonua identifikatu du.
- c) Bizitza sozialarekin, profesionalarekin edo akademikoarekin lotzen diren hizkuntza estandarreko grabazioetatik atera du informazioa.
- d) Hiztunaren ikuspuntuak eta jarrerak identifikatu ditu.
- e) Hizkuntza estandarrean eta erritmo normalean egindako gai zehatzei eta abstraktuei buruzko mezu eta adierazpenen ideia nagusiak identifikatu ditu.
- f) Hizkuntza estandarrean adierazten zaiona xehetasun guztiekin ulertu du, baita ingurune zaratatsu batean ere.
- g) Hitzaldi, solasaldi eta txostenetako ideia nagusiak atera ditu, baita hizkuntza-mailan konplexuak diren aurkezpen akademiko eta profesionaleko beste modu batzuetako ideia nagusiak ere.
- h) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

2.– Idatzizko testu zailtan bildutako informazio profesionala interpretatzen du, edukiak modu ulerkorrean aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Independentzia-maila handiarekin irakurri du, eta irakurmenaren abiadura eta estiloa testuetara eta xedeetara egokitu du eta erreferentzia-iturri egokiak modu selektiboan erabili ditu.
- b) Bere espezialitateari dagozkion gutunak interpretatu ditu, eta erraz ulertu du funtsezko esanahia.
- c) Zehatz-mehatz interpretatu ditu testu luze eta zail samarrak, bere espezialitatearekin lotzen direnak eta lotzen ez direnak, atal zailak berriro irakurtzeko aukera izanez.
- d) Aztergai duen lanbide-jardueraren esparruarekin erlazionatu du testua.
- e) Berehala identifikatu du askotariko gai profesionalei buruzko albisteen, artikuluen eta txostenen edukia eta garrantzia, eta analisi sakonagoa behar den erabaki du.
- f) Testu zailen itzulpenak egin ditu, eta, beharrezkoa izan denean, laguntza-materiala erabili du.
- g) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezu teknikoak interpretatu ditu.
- h) Bere espezialitateko jarraibide luzeak eta zailak interpretatu ditu.

3.– Ahozko mezu argiak eta ondo egituratuak ematen ditu, eta egoeraren edukia aztertzen du eta solaskidearen hizkuntza-erregistrora egokitzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Mezua emateko erabilitako erregistroak identifikatu ditu.
 - b) Emari, doitasun eta eraginkortasunez mintzatu da askotariko gai orokorrei, akademikoei eta profesionalei buruz, edo aisialdiko gaiei buruz, eta argi lotu ditu ideiak.
 - c) Naturaltasunez komunikatu da eta zirkunstantzien araberrako formaltasun-maila egokiaz egin du.
 - d) Aurkezpen formaletan eta informaletan protokolo-arauak erabili ditu.
 - e) Lanbidearen terminologia behar bezala erabili du.
 - f) Argi eta garbi adierazi eta babestu ditu bere ikuspuntuak, eta azalpen eta argudio egokiak eman ditu.
 - g) Bere kompetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
 - h) Lanerako aukera edo prozedura jakin bat hautatzea xehetasun guztiekin argudiatu du.
 - i) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.
- 4.– Lanbide-jarduerako edo bizitza akademikoko eta eguneroko bizitzako dokumentuak eta txostenak egiten ditu, eta hizkuntza-baliabideak idazkiaren xedearekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Espezialitatearekin lotzen diren askotariko gaiei buruzko testu argiak eta zehatzak idatzi ditu, eta hainbat iturritatik jasotako informazioak eta argudioak laburtu eta ebaluatu ditu.
 - b) Informazioa zuzentasunez, doitasunez eta koherentziaz antolatu du, eta informazio orokorra edo zehatza eskatu eta eman du.
 - c) Txostenak idatzi ditu, alderdi adierazgarriak nabarmendu ditu eta lagungarriak izango diren xehetasun garrantzitsuak eman ditu.
 - d) Bere lanbide-eremuko dokumentazio espezifikoak bete du.
 - e) Dokumentuak betetzerakoan ezarritako formulak eta hiztegi espezifikoak aplikatu ditu.
 - f) Artikuluak, jarraibideen eskuliburuak eta bestelako dokumentuak idatzi batzuk laburbildu ditu, eta, horretarako, hiztegi zabala erabili du, errepikapenak saihestearren.
 - g) Landu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- 5.– Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak aplikatzen ditu, eta atzerriko hizkuntzaren herrialdeko harreman tipiko bereizgarriak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko berezko balioak eta sinesmenak identifikatu ditu.

d) Lanbide-jardueraren berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.

e) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

f) Eskualde-jatorriaren hizkuntza-markak ezagutu ditu.

B) Edukiak:

1.– Ahozko mezuak aztertzea.

Ahozko mezu profesionalak eta egunerokoak ulertzea –zuzenekoak zein telefono bidezkoak, irati bidezkoak edo grabatuak–.

Ahozko testu baten ideia nagusiak eta bigarren mailakoak identifikatzea.

Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea, hala nola adostasuna eta desadostasuna, hipotesiak eta espekulazioak, iritziak eta aholkuak, pertsuasioa eta ohartarazpenak.

Administrazioaren eta kudeaketaren lanbide-jarduerako berariazko terminologia.

Ahozko testuak ulertzeko beharrezko gramatika-baliabideak. Adibidez: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, izaeraren eta zalantzaren adierazpena, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa, aditz modalak...

Ahozko hizkuntzaren hainbat azentu.

Ulertzeko interesa izatea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2.– Idatzizko mezuak interpretatzea.

Mezuak, testuak, eta oinarrizko artikulak profesionalak eta egunerokoak ulertzea.

Edozein euskarri tradizionaletan edo telematikoetan (fax, e-posta, burofaxa) emandako testuak ulertzea.

Sektorearekin lotzen diren mota guztietako testu-tipologiak ezagutzea.

Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.

Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Lanbide-jardueraren berariazko terminologia.

Idatzizko testuak ulertzeko beharrezko gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, izaeraren, zalantzaren eta desioaren adierazpena, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa, aditz modalak, beste batzuk.

Sektorean ohikoenak diren testu-tipologiaren egitura.

Ulertzeko interesa izatea.

Lanbidearekin lotzen diren edozein motatako testuak ulertzeko beharrezko baliabideak erabiltzen autonomiaz jardutea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.
Informazio-iturriekiko jarrera erreflexiboa eta kritikoa izatea.

3.– Ahozko mezuak sortzea.

Honako hizkuntza-baliabideak ezagutzea: adostasuna eta desadostasuna, hipotesiak eta espekulazioak, iritziak eta aholkuak, pertsuasioa eta ohartarazpenak.

Gizarte-harremanetarako hizkuntza-adierazgailuak, adeitasun-arauak eta erregistro desberdinak erabiltzea.

Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: hitz egiteko txanda hartzea, mantentzea eta lagatzea, sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argibideak eskatzea, eta abar.

Intonazioa ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa erabiltzea: intonazio-ereduak erabiltzea.

Gramatika-baliabideak, ahozko mezuak sortzeari dagokionez: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, izaeraren eta zalantza adierazpena, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa, aditz modalak, beste batzuk.

Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak.

Lanbide-jardueraren berariazko terminologia.

Fonetika, intonazioa eta erritmoa, ahozko mezuei dagokienez.

Ikasgelan ingelesa erabiltzearen aldeko jarrera positiboa izatea.

Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.

Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

4.– Idatzizko testuak sortzea.

Hainbat euskarritan emandako sektoreko dokumentu eta testu profesionalak eta egunerokoak adieraztea eta betetzea.

Testu koherenteak lantzea:

- Testua komunikazio-testuingurura egokitzea.
- Testuaren mota eta formatua.
- Hizkuntza-aldaera.
- Erregistroa.
- Gairako sarrera eta diskurtsoaren hasiera. Garapena eta iritsiera: adibideak. Diskurtsoaren amaiera eta laburpena.
- Sektorearen berariazko terminologia egokia erabiltzea.
- Egitura sintaktikoak hautatzea.
- Puntuazio-markak erabiltzea.

Lanbide-jardueraren berariazko terminologia.

Testuak igortzeko beharrezko gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, phrasal verbs, lokuzioak, aditz modalak, lokuzioak, boz pasiboaren erabilera, perpaus erlatiboak, zeharkako estiloa.

Beste baliabide batzuk: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.

Loturak: although, even if, in spite of, despite, however, in contrast, eta beste batzuk.

Eratorpena: adjektiboak eta substantiboak osatzeko atzizkiak.

Denbora-erlazioak: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna.

Sektorean ohikoenak diren testu-tipologien egitura.

Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.

Lanbidearekin lotzen diren edozein motatako testuak sortzeko beharrezko baliabideak erabiltzeko autonomia izatea.

Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

5.– Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen kultura-elementu adierazgarrienak identifikatzea eta interpretatzea.

Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.

Komunikazioaren testuinguruaren, solaskidearen eta solaskideen asmoaren arabera, erregistrorik egokienak erabiltzea.

Ingelesa hizkuntza duten herrialdeetako gizarte- eta kultura-elementurik adierazgarrienak.

Nazioarteko harremanetan arau soziokulturalak eta protokoloak baloratzea.

Atzerriko hizkuntza ezagutzea, bizitza pertsonalean eta profesionalean interesgarriak izan daitezkeen jakintzak areagotzeko.

3. lanbide-modulua: Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak.

Kodea: 1123.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 132 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 9.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak planifikatzen ditu, eta aisialdiko eta denbora libreko animazioaren printzipioak erabiltzaileen beharrekin eta ekipamenduen eta baliabideen ezaugarrienkin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aisialdiko eta denbora libreko jardun-testuinguruak baloratu ditu.

b) Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren printzipioak ezaugarritu ditu.

- c) Aisialdiko hezkuntzaren oinarriak ezarri ditu.
- d) Aisialdiko eta denbora libreko proiektua pertsona erabiltzaileen beharretara egokitu du.
- e) Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzeko estrategiak baloratu ditu.
- f) Aisialdiko eta denbora libreko proiektuetarako ekipamenduak eta baliabideak hautatu ditu.
- g) Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan animatzailearen funtzioak eta egitekoa identifikatu du.
- h) Aisialdiko eta denbora libreko hezkuntza-asmoaren garrantzia justifikatu du.

2.– Hezkuntza-arloko aisialdiko eta denbora libreko jarduerak antolatzen ditu, eta, horretarako, espazioak eta baliabideak eta prebentzioaren eta segurtasunaren arloko araudia aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jokoaren pedagogiaren printzipioak identifikatu ditu.
- b) Jokoaren bilakaera motak eta jarraibideak identifikatu ditu.
- c) Jolas-jarduerak garatzeko espazioak, baliabideak eta materialak hautatu ditu.
- d) Espazioak eta materialak antolatzeko irizpideak ezarri ditu.
- e) Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan, jolas-baliabideak erabiltzeko estrategiak ezarri ditu.
- f) Hezkuntzaren arloko aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egitean, segurtasun- eta prebentzio-neurriak hartu ditu kontuan.

g) Jokoaren hezkuntza-balioa argudiatu du.

3.– Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak inplementatzen ditu, animazioko hezkuntza-baliabideak eta -teknikak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ahozko adierazpena, gorputz-adierazpena, musika-adierazpena, adierazpen plastikoa eta ikus-entzunezkoa garatzeko teknikak erabili ditu.
- b) Gizarte, adimen eta mugimeneko trebetasunak garatzeko jokoak hautatu ditu.
- c) Baliabideak hautatu ditu, esku-hartzearen helburuak kontuan izanik.
- d) Ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak erabili ditu aisialdiko eta denbora libreko animazio-tresna gisa.
- e) Espazioak egokitu ditu, jardueren hezkuntza-ahalmenari erreparatuta.
- f) Animazio-baliabideak eta -teknikak pertsona erabiltzaileen beharretara egokitu ditu.
- g) Pertsona erabiltzaileen sormena garatzeko adierazpen-tekniken garrantzia argudiatu du.

4.– Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak ingurune naturalean egiten ditu, ingurumena konserbatzeko printzipioak eta prebentzio- eta segurtasun-neurriak errespetatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aisialdiko eta denbora libreko jardueren bitartez, ingurumen-hezkuntzaren garrantzia baloratu du.
- b) Ingurune naturalaren ezaugarriak definitu ditu, aisialdiko eta denbora libreko espazio gisa.
- c) Ingurune naturaleko aisialdiko eta denbora libreko jarduera-proiektuaren helburuekin koherenteak diren teknikak eta tresnak aplikatu ditu.
- d) Ingurune naturalean hezkuntza-jarduerak garatzeko estrategiak eta jarraibideak hautatu ditu.
- e) Arriskuak minimizatuta ingurune naturalean ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratu du.
- f) Jarduerak ingurune naturalean garatzeko beharrezko baliabideak identifikatu ditu.
- g) Jardueraren garapena bermatzeko giza baliabideak antolatu ditu.
- h) Ingurune naturalean garatutako jardueretan gertatzen diren larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatu ditu.

5.– Aisialdiko eta denbora libreko jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko jarduerak garatzen ditu, eta hobe daitezkeen alderdiak identifikatzeko estrategiak teknikak eta baliabideak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak eta jarduerak ebaluatzean, jarraitu beharreko adierazleak hautatu ditu.
- b) Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan ebaluazioa egiteko teknikak eta tresnak definitu ditu.
- c) Aisialdiko eta denbora libreko proiektuen eta jardueren jarraipen-erregistroak landu eta bete ditu.
- d) Ebaluazio-txostenak eta -memoriak landu ditu.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
- f) Inplikaturik dauden pertsonen ebaluazioaren emaitzak transmititu ditu.
- g) Aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektua garatzean, kalitate- eta hobekuntza-prozesuak hartu ditu kontuan.
- h) Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren barruan, ebaluazioak hezkuntza-jardunaren prozesuan duen garrantzia justifikatu du.

B) Edukiak:

1.– Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak planifikatzea.

Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak planifikatzea.

Berriazko kolektiboetarako aisialdiko eta denbora libreko proiektuak planifikatzea:

- Haurrentzat.
- Gazteentzat.
- Helduentzat.
- Hirugarren adineko pertsonentzat.
- Minusbalotasunak dituzten pertsonentzat.
- Beste kolektibo batzuentzat.

Aisialdiko eta denbora libreko baliabideak eta ekipamenduak. Aisialdiko eta denbora libreko zentroak: ludotekak. Lege-esparrua. Antolamendu-egitura eta egitura funtzionala:

- Haur-parkeak.
- Joko-espazio pribatua.
- Kanpalekuak eta abeletxe-eskolak.
- Aisialdi-elkarteak.
- Elkarte-mugimenduak.
- Arnas-jarduerak.
- Adinekoen etxeak eta zaharren elkarteak.
- Bainuetxeak.
- Beste batzuk.

Aisialdiko eta denbora libreko jardueren dinamizazioa eta koordinazioa.

Balioen arloko heziketarako aisialdia eta denbora librea.

Aisialdian eta denbora librean esku hartzeko testuinguruak.

Aisialdiko eta denbora libreko proiektuaren egokitzapena, pertsona erabiltzaileen beharrak kon-tuan izanik.

Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak garatzeko estrategiak.

Aisialdia eta denbora librea:

- Denbora librearen ezaugarriak gaur egungo gizartean.
- Gizartearen eta denbora librearen analisisa.
- Aisialdiaren eta denbora librearen arteko desberdintasunak.

Aisialdiaren pedagogia:

- Kontzeptua.
- Aisialdiaren pedagogiaren ezaugarriak.
- Aisialdiaren pedagogiaren xedeak.

Oinarri pedagogikoak aisialdiko hezkuntzan.

Aisialdi inklusiboa. Aisialdiaren okupazioa minusbaliotasuna duten pertsonengan.

Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren metodologia. Estrategiak eta teknikak.

Aisialdiko eta denbora libreko hezkuntza-asmoaren garrantzia.

2.– Hezkuntzaren arloko aisialdiko eta denbora libreko jarduerak antolatzea.

Aisialdi-espazioak antolatzea:

- Ludotekak.
- Aterpeak, kanpalekuak eta abeletxe-eskolak.
- Salgune handietako jolas-espazioak.
- Beste espazio batzuk (ospitaleetan eta aisialdi-elkarteetan, besteak beste).
- Aisialdiko eta denbora libreko jardueretarako materialak antolatzea eta hautatzea.

Jolasaren pedagogia. Jolasaren hezkuntza-balioa.

Jolasa:

- Motak eta funtzioak.
- Ezaugarriak.
- Jolasaren bilakaera.

Jolasaren erabilera, aisialdiko eta denbora libreko animazioan.

Jostailua:

- Jostailuen sailkapena.
- Jolasa eta jostailu tradizionala.
- Segurtasun-araudia.

Jolas-espazioak:

- Ludotekak. Lege-esparrua. Antolamendu-egitura eta egitura funtzionala.
- Aisialdiko haur-parkeak: espazio irekiak eta itxiak.

Jolas-jardueren motak:

- Makromuntaiak edo jolas handiak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak.
- Festa.
- Gau-jaiak.
- Kalejirak.

Jolas-baliabideak.

Aisialdiko eta denbora libreko jardueretan ingurune seguruak sortzearen garrantzia baloratzea.

3.– Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak inplementatzea.

Ahozko adierazpena, plastikoa, mugimendukoa, musikakoa eta ikus-entzunezkoa garatzeko teknikak aplikatzea.

Adierazpena garatzeko jarduerak egitea:

- Ahozko adierazpeneko jarduerak egitea.
- Adierazpen plastikoko jarduerak egitea.
- Mugimen-adierazpeneko jarduerak egitea.
- Musika-adierazpeneko jarduerak egitea.
- Ikus-entzunezko adierazpeneko jarduerak egitea.

Aisialdiko eta denbora libreko animazioan ikus-entzunezko eta informatikako baliabideak aplikatzea.

Aisialdirako eta denbora librerako jarduerak diseinatzea, adierazpen-baliabideak eta -teknikak abiapuntu izanik.

Adierazpen-baliabideak erabiltzaileen beharretara egokitzea.

Minusbaliotasunak dituzten pertsonentzako aisialdiko eta denbora libreko jarduera normalizatuak diseinatzea.

Baliabideak hautatzea, esku-hartzearen helburuak kontuan izanik.

Jardueren hezkuntza-ahalmenaren arabera egokitzea espazioak.

Animazioa eta adierazpen-teknikak.

Sormena, esanahia eta baliabideak.

Gizarte- eta adimen-trebetasunak garatzeko jolasak.

Pertsonaren mugimen-garapenerako jolasak:

– Oinarrizko mugimen-trebetasunak identifikatzea: igotzea, jauziak egitea, mugimenduak egitea, jaurtiketak egitea.

– Mugimen-garapenerako berariazko jolasak.

– Jolasak hautatzeko irizpideak, pertsona erabiltzailearen mugimen-aukeren arabera.

Lantegiak aisialdiko hezkuntzan.

Pertsona erabiltzaileen sormena garatzeko adierazpen-tekniken garrantzia.

4.– Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak egitea ingurune naturalean.

Ingurune naturalerako jarduerak antolatzea eta garatzea.

Txangoetako baliabideak aztertzea eta aplikatzea:

- Erliebea.
- Ibilbideen aurreikuspena.

Norberaren kargurako teknikariak koordinatzea:

- Jardueretarako jardun-jarraibideak.

Baliabideak erabiltzea eta mantentzea ingurune naturalean.

Ingurune naturaleko aisialdiko eta denbora libreko jardueretako proiektuaren helburuekin koherenteak diren teknikak eta tresnak aplikatzea.

Ingurune naturalean hezkuntza-jarduerak garatzeko estrategiak eta jarraibideak hautatzea.

Jardueraren garapena bermatzeko giza baliabideak antolatzea.

Ingurune naturalean garatutako jardueretan gertatzen diren larrialdi-egoeretan laguntzeko protokoloak aplikatzea.

Ingurumen-hezkuntza:

- Ingurumen-hezkuntzaren ezaugarriak eta printzipioak.
- Ekologia. Meteorologia.
- Ingurumen-hezkuntzako animatzailearen funtzioak.
- Ingurumen-hezkuntza eta iraunkortasuna.

Aire zabaleko jardueretako lege-esparrua.

Ingurune naturalean jarduerak egiteko instalazioak:

- Instalazioak erabiltzeko lege-esparrua.
- Erabiltzaileentzako informazio- eta segurtasun-protokoloak.

Ingurune naturala hautemateko teknikak:

- Orientazioa naturan: teknikak eta prozedurak. Mapa eta iparrorratza.
- Mendi-ibiliak.

Ingurune naturaleko orientazio-jarduerak.

- Orientazioko lasterketak eta jolasak.

Ibilbideak eta kanpalekuak:

- Diseinua, antolamendua, materialak eta segurtasun-neurriak.
- Ingurunea ezagutzeko ibilbideak.
- Minusbaliotasuna duten pertsonentzako egokitzapena.

Ingurumen-jolasak eta -jarduerak.

Hiri-ekosistema.

Prebentzioa eta segurtasuna ingurune naturaleko aisialdiko eta denbora libreko jardueretan.

Ingurune naturaleko larrialdiko egoeretan.

Aisialdiko eta denbora libreko jardueren bitartez, ingurumen-hezkuntzaren garrantzia baloratzea.

Arriskuak minimizatuta ingurune naturalean ingurune seguruak sortzearen garrantzia aintzat hartzea.

5.– Aisialdiko eta denbora libreko jardueren jarraipen eta ebaluazioko jarduerak garatzea.

Jarraipen-erregistroak egitea eta betetzea.

Memoriak eta txostenak prestatzea.

Aisialdiko eta denbora libreko proiektuak eta jarduerak ebaluatzean, jarraitu beharreko adierazleak hautatzea.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, jardueren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektuak:

– Ezaugarriak.

– Ebaluazioaren uneak.

Aisialdiaren eta denbora librearen esparruan ebaluazioa egiteko teknikak eta tresnak definitzea:

– Behaketa.

– Elkarriketak.

– Galdetegiak.

Ebaluazio-adierazleak.

Aisialdiko eta denbora libreko proiektuetako eta jardueretako kalitate-kudeaketa.

Aisialdiko eta denbora libreko animazio-proiektuak garatzeko informazioaren transmisioaren garrantzia aintzat hartzea.

Aisialdiko eta denbora libreko animazioaren barruan, ebaluazioak hezkuntza-jardunaren prozesuan duen garrantzia justifikatzea.

4. lanbide-modulua: Talde-dinamizazioa.

Kodea: 1124.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 132 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzat: 7.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Talde-sorrerako estrategiak garatzen ditu, aisialdiko inguruneetako esku-hartzeak taldearen beharrekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeekin esku-hartzearen printzipioak aplikatu ditu.
- b) Goi-mailako teknikariaren jardun-esparrua ezaugarritu du.
- c) Taldearen jardun-beharrak baloratu ditu.
- d) Gizarte-kognizioko prozesuak talde-sorrerarekin lotu ditu.
- e) Talde batean parte-hartzearen gizarte-arrazoiak baloratu ditu.
- f) Parte-hartzaileak taldearen sorreran inplikatzearen garrantzia baloratu du.
- g) Talde baten barruko elkarreraginean, bestea errespetatzearen garrantzia justifikatu du.
- h) Taldeak abian jartzeko teknika parte-hartzaileak aplikatu ditu, taldeekin esku-hartzearen printzipioak aintzat hartuta.

2.– Taldea dinamizatzen du, talde-dinamikako tekniken erabilera dagozkion faseetara egokituta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Talde baten egitura ezaugarritu du.
- b) Talde baten faseak identifikatu ditu.
- c) Talde-teknikak aplikatu ditu, taldea dagoen faseetako bakoitzerako.
- d) Aisialdi-egoeretan, elkarlan- eta gozamen-giroa bermatzeko neurriak proposatu ditu.
- e) Talde baten barruan parte-hartzea sustatzeko metodo aktiboak erabili ditu.
- f) Espazioak antolatzeko, taldearen ezaugarriak kontuan hartu ditu.
- g) Egin beharreko talde-tekniketara egokitu ditu denborak.
- h) Taldeko kide guztiekin elkarreraginean jarduteko, talde-dinamikak egitearen garrantzia baloratu du.

3.– Komunikazio-teknikak hautatzen ditu, prozesuan inplikaturik dauden pertsonen eta taldeen ezaugarriak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-prozesuaren elementuak aztertu ditu.
- b) Talde-komunikazioko oztopoak gainditzeko estrategiak hautatu ditu.
- c) Komunikazio-teknikak testuinguruetara eta taldeetara egokitu ditu.
- d) Testuinguruaren arabera komunikazio-prozesua eraginkorrago egiten duten komunikazio estiloak definitu ditu.
- e) Komunikazio-prozesua errazteko beharrezko komunikazio-trebetasunak deskribatu ditu.
- f) Aniztasun kulturalari eta funtzionalari erreparatuta, egoera jakin bakoitzerako –batez ere minusbaliotasun-egoeretarako– egokiak diren komunikazio-teknikak zehaztu ditu.
- g) Komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemak ezarri ditu.

4.– Proiektuen araberako lan-taldeak antolatzen ditu, eta elkarlanerako eta koordinaziorako teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldearen lan-egoera eta berau osatzen duten profesionalen profilak ezaugarritu ditu.
- b) Talde-lanaren helburuak formulatu ditu.
- c) Lan-taldea dinamizatzeko teknika parte-hartzaileak erabili ditu.
- d) Taldeko kideen artean zereginak eta eginkizunak banatu ditu, kide bakoitzaren gaitasunak kontuan izanik.
- e) Lan-taldeko kideen zereginen sekuentzia koordinatu du.
- f) Lan-taldeko kideen zereginak eta eginkizunak gainbegiratzeko eta ebaluatzeko prozedurak zehaztu ditu.
- g) Lan-giro egokia sortzearen garrantzia eta lan-taldeetako kideen berdintasunaren sustapena baloratu du.
- h) Taldeko kideen prestakuntza-zereginak zehaztu ditu, betiere jardueretan segurtasuna bermatzen duten teknikei eta protokoloei dagokienez.

5.– Talde-gatazkak kudeatzeko eta arazoak ebazteko estrategiak aplikatzen ditu, jardunaren testuinguruaren araberako teknikak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeen funtzionamenduan, arazoen eta gatazken sorburu nagusiak finkatu ditu.
- b) Taldearen barruan taldeen gatazkak kudeatzeko teknikak garatu ditu.
- c) Taldearen barruan arazoak ebazteko gizarte-trebetasunak garatu ditu.
- d) Arazoak ebazteko estrategiak baloratu ditu.
- e) Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak jarraitu ditu.
- f) Gatazken kudeaketan eta arazoen ebazpenean komunikazio-estrategiak erabiltzearen garrantzia baloratu du.

6.– Talde-prozesuak eta lanbide-funtzioak garatzeko gizarte-kompetentzia bera ebaluatzen ditu, hobe daitezkeen alderdiak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
- c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.
- d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Bildutako datuak baloratu ditu.

g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.

h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.

B) Edukiak:

1.– Taldea sortzeko estrategiak.

Goi-mailako teknikarien jardun-esparrua aztertzea. Hotel-instalazioak, kanpinak, kolonia-etxeak, kanpalekuak, ludotekak, kirol-instalazioak eta ikastetxeak –eskolaz kanpoko ordutegian–, besteak beste.

Taldeekin jarduteko printzipioak. Talde-prozesuak hasteko eta dinamizatzeko prozesuak: aisialdian dauden taldeen sorrerara bideratutako teknikak aplikatzea.

Taldeei aplikatutako gizarte-psikologia.

Gizarte-kognizioa. Gizarte-kognizioarekin lotzen diren elementuen analisia: gizarte-eskemak eta gizarte-ikuskerak.

Gizarte-motibazioa. Emozioak eta motibazioak.

Taldea. Ezaugarriak. Taldea osatzen duten elementuak. Motak.

Animazio turistikoan talde-partaidetzako metodo aktiboak eta teknikak. Taldeen sorreran parte hartzeak duen garrantzia.

Bestearekiko errespetua baloratzea, talde batean elkarreragiteko printzipio gisa.

Taldearen jardun-beharrak baloratzea.

Parte-hartzaileak taldearen sorreran inplikatzearen garrantzia baloratzea.

2.– Talde-dinamizazioa.

Goi-mailako teknikarien jardun-esparrua aztertzea. Hotel-instalazioak, kanpinak, kolonia-etxeak, kanpalekuak, ludotekak, kirol-instalazioak eta ikastetxeak –eskolaz kanpoko ordutegian–, besteak beste.

Talde-teknikak aplikatzea:

– Aurkezpen-teknikak.

– Motibazio-teknikak.

– Lan-teknikak.

– Komunikazio-teknikak.

– Gatazkak ebazteko teknikak.

– Amaierako teknikak edo ebaluazio-teknikak.

Aisialdi-egoeretan, elkarlan- eta gozamen-giroa bermatzeko neurrien diseinua.

Talde baten barruan parte-hartzea sustatzeko metodo aktiboak.

Espazioak antolatzea, taldearen ezaugarriak kontuan hartuta.

Egin beharreko talde-tekniketara egokitutako denborak.

Taldeko kide guztiekin elkarreraginean jarduteko, talde-dinamikak egitearen garrantzia.

3.– Komunikazio-teknikak hautatzea.

Komunikaziorako teknologia berriak aplikatzea.

Komunikazio-prozesuaren elementuak aztertzea.

Talde-komunikazioko oztopoak gainditzeko estrategiak hautatzea.

Komunikazio-teknikak testuinguruetara eta taldeetara egokitzea.

Komunikazio-prozesua. Ezaugarriak eta funtzioak: talde-elkarreragina, atzeraelikadura, pertso-
nen arteko komunikazioa eta talde handien arteko komunikazioa.

Komunikazio-prozesuko elementuak.

Komunikazio-estiloak. Asertibitatea.

Komunikazio-sistemak. Komunikazio motak: hitzezkoa eta ez-hitzezkoa.

Komunikazioaren oztopoak:

– Ohikoenak diren zailtasunak. Komunikazioa eta minusbaliotasunak dituzten pertsonak. Ozto-
poak aurkitzea: animatzailearengan, erabiltzailearengan eta ingurunean.

– Komunikazioa sustatzeko eta oztopoak gainditzeko estrategiak.

Komunikazioko oinarrizko gizarte-trebetasunak:

– Komunikazioko oinarrizko trebetasunen ezaugarri orokorrak.

– Parte-hartzaileei arreta emateko jokabideak.

– Entzute aktiboa.

Komunikazio-sistemak baloratzeko estrategia motak.

Komunikazio-trukeak gaineratzen duena baloratzea eta errespetatzea.

4.– Lan-taldeak antolatzea.

Antolakunde baten barruan lan-taldeak koordinatzea eta dinamizatzea.

Lan-taldea dinamizatzeke teknika parte-hartzaileak erabiltzea.

Talde-lana.

Komunikazio horizontala eta bertikala lan-taldean.

Zereginak eta eginkizunak banatzeko estrategiak.

Lan-taldeko kideen funtzioak garatzeko motibazio eta laguntzako teknikak.

Bilerak gidatzeko teknikak. Bilera motak.

Informazio, motibazio eta orientazioko teknikak, lan-taldearen barruan:

– Jardueren eta instalazioen segurtasun-arauei buruzko prestakuntza, taldea osatzen duten pertsonei zuzendua.

– Zereginak eta eginkizunak gainbegiratzea eta jarraipena egitea.

Lan-giroa. Lan-giroarekin lotzen diren arazoak. Burning. Moobing.

Lan-taldearen sorreran berdintasuna sustatu izana baloratzea.

Lan-taldearen barruan komunikazioko eta koordinazioko prozesuek duten garrantzia baloratzea.

5.– Gatazkak ebazteko estrategiak aplikatzea.

Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak jarraitzea.

Taldeko banako gatazkak eta gatazka kolektiboak. Talde-integrazioaren kausak eta efektuak. Gatazkaren izaera: funtzionala eta disfuntzionala. Gatazka motak: zereginen arlokoak, harremanen arlokoak eta prozesuen ondoriozkoak.

Erabakiak. Erabakiak hartzeko prozesuaren faseak.

Taldearen jarrera gatazken aurrean.

Gatazkak kudeatzeko eta ebazteko teknikak:

– Negoziazioa eta bitartekaritza.

– Eztabaida, arazoaren ebazpena eta berregituratze kognitiboa.

– Teknikak eta prozedurak.

Taldearen funtzionamenduan, arazoaren eta gatazken sorburu nagusiak identifikatzea.

Taldearen barruan, taldearen gatazkak kudeatzeko teknikak garatzea.

Taldearen barruan arazoak ebazteko gizarte-trebetasunak garatzea.

Talde-gatazken ebazpenean komunikazio-estategiek duten garrantzia.

6.– Konpetentzia soziala eta talde-prozesuak ebaluatzea.

Taldeekiko lanean gizarte-ikerketako teknikak aplikatzea.

Taldeak aztertzekeko estrategiak eta tresnak aztertzea.

Ebaluazio-adierazleak hautatzea.

Datuak biltzea. Teknikak.

Konpetentzia sozialaren ebaluazioa.

Taldearen egitura eta prozesuaren ebaluazioa. Behaketa-teknikak eta oinarriko soziometria. Egoeraren eta talde-dinamikaren ebaluazioa.

Antolamendu teknikoaren hainbat modu ezagutzeko eta, hala badagokio, gainerako alderdietatik urrundu gabe alderdi batean espezializatzeko ardura hartzeko interesa izatea.

Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea.

5. lanbide-modulua: Kultura-animazioa eta -kudeaketa.

Kodea: 1125.

Kurtsoa: 2.a.

Iraupena: 200 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 14.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Kultura-jarduna ezaugarritzen du, eta esparru teoriko eta juridikoarekin eta kulturaren behar eta eskariekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gizartean kultura-arloko ezaugarri adierazgarriak identifikatu ditu.

b) Kulturaren arloko marketin, animazio eta kudeaketako kontzeptuak aztertu ditu.

c) Kultura-jardunaren esparruak eta testuinguruak deskribatu ditu.

d) Europako, estatuko, autonomiako eta tokiko kulturaren arloko erakundeak eta politikak aztertu ditu.

e) Hainbat kultura-eragileren jardun-ereduak alderatu ditu.

f) Kultura-ekintzaren legezko esparrua eta organismo publikoen eta kultura-sareen arteko elkar-lana arautzen duten formula juridikoak interpretatu ditu.

g) Lurraldearen analisirako teknikak eta tresnak deskribatu ditu, eta merkatuko hainbat segmen-turen kultura-eskariak eta -lehentasunak identifikatu ditu.

h) Jarduna oinarritzeko garaian, lurraldearen analisiaren garrantzia baloratu du.

2.– Kultura-programazioak diseinatzeko, eta, horretarako, plangintza estrategikoaren iriz-pideak eta norabideak interpretatzen ditu eta kultura-kudeaketaren kontzeptuzko esparruarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kultura-kudeaketaren kontzeptuzko esparrua interpretatu du.

b) Kultura- eta enpresa-politikak interpretatu ditu, kultura-programazioaren diseinuari eta gara-penari aplikatu dakizkiokeen norabide gisa.

c) Kultura-programazioak diseinatzeko eta garatzeko lehentasunak eta printzipio zuzentzaileak identifikatu ditu, betiere plangintza estrategiko batean ezarritakoak.

d) Kultura-programazioa egiteko, hainbat iturritatik eta baliabidetatik lortu du informazioa.

e) Kultura-programazioaren ekitaldien denbora-antolamendua ezarri du, beste ekitaldi batzue-kin koordinatuta.

f) Kultura-programazio baten elementuak modu koherentean ezarri eta garatu ditu, plangintza estrategikoaren helburuei erreparatuta.

g) Kultura-programazioaren garapenean sektoreko entitateen edo partaideen parte-hartzea ahalbidetzeko estrategiak deskribatu ditu.

h) Informazioa bilatzean eta kultura-programazioa diseinatzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu.

3.– Kultura-animazioko proiektuak diseinatzen ditu, eta kultura-jardunaren eta -dinamizazioaren ereduekin eta printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kultura-animazioaren kontzeptuzko esparrua interpretatu du.
- b) Kultura-animazioa ezaugarritu du, kolektiboaren eta jardun-testuinguruen arabera.
- c) Kultura-animazioko proiektuen egitura eta ezaugarriak deskribatu ditu.
- d) Kultura-animazioko proiektu baten elementuak modu koherentean ezarri eta garatu ditu.
- e) Kultura-elkarteen sareek esku-hartzearen plangintzan eta garapenean parte hartzea eta laguntzea sustatzen duten estrategiak eta tresnak deskribatu ditu.
- f) Hainbat motatako kultura-jardueren ezaugarriak eta aplikazioak aztertu ditu.
- g) Kultura-elkarteen sareek proiektuen garapenean duten garrantzia baloratu du.
- h) Kultura-animazioko proiektuen plangintzan guztientzako irisgarritasun- eta diseinu-irizpideak txertatzearen garrantzia baloratu du.

4.– Kultura-animazioko jarduerak antolatzen ditu, eta kultura-ondarearen eta kultura-ekipamendu espezializatuen erabileraren ezaugarriak eta aukerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ondare-ondasunen erabilerak eta aukerak ezarri ditu, kultura-animazioko baliabide gisa.
- b) Kultura-animazioan, liburutegiak, museoak eta beste kultura-ekipamendu espezializatu batzuk erabiltzearen aukerak eta ezaugarriak identifikatu ditu.
- c) Ekipamenduen antolamendu-egiturari eta egitura funtzionalari buruzko informazioa lortu du, baita horien xedeari, egitekoari eta helburuei buruzkoa, betiere esku-hartzea sustatzeko.
- d) Erabilitako ekipamenduekin edo baliabidearekin koherenteak diren kultura-animazioko jarduerak egin ditu.
- e) Kultura-animazioko jarduerak egiteko estrategiak hautatu ditu, kultura-ekipamendu espezializatuen funtsak abiapuntu izanik.
- f) Kultura-ekipamendu espezializatuetakoa animatzaile soziokulturalaren zeregina definitu du.
- g) Jardueren garapenean egokitzapenak egin ditu, behar bereziak dituzten kolektiboen partaidetza ahalbidetzeko.
- h) Kultura-animaziorako baliabide gisa kultura-ekipamenduek eta -ondareak duten garrantzia baloratu du.

5.– Kultura-kudeaketako jarduerak egiten ditu, garatuko den kultura-ekintzarekin lotzen diren eta eskura dauden baliabideak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kultura-espazioetako ekipamenduen eta azpiegituren inbentarioak egiten ditu.
- b) Egin beharreko jardueraren edo ekitaldiaren arabera kultura-ekipamenduak eta -azpiegiturak hautatu ditu.
- c) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta horien garatze-beharren arabera antolatu ditu.
- d) Kultura-jarduera edo -ekitaldi bakoitzerako beharrezko baliabideak, bitarteko teknikoak eta logistika finkatu ditu.
- e) Baliabide materialak eta giza baliabideak esleitu ditu, baita kultura-ekitaldien garapenarekin lotzen diren lanak egiteko denborak ere.
- f) Antolamendu-txantiloiak landu eta bete ditu, prozesuan inplikaturik dauden pertsonen jarduren aurreikuspena hobe ezagutzeko.
- g) Jardueraren garapen-baldintzei erantzuteko aurrekontuak landu ditu.
- h) Kultura-ekitaldien logistikarekin eta antolamenduekin lotzen diren kudeaketa-dokumentuak landu eta bete ditu.

6.– Kultura-animazioko jarduerak egiten ditu, eta kultura-adierazpenen ezaugarriak eta erabile-ra-aukerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Programazioan ezarritako irizpideak errespetatu ditu.
- b) Jarduerak egiteko estrategiak hautatu ditu, hainbat kultura-adierazpen abiapuntu izanik.
- c) Jarduna funtsatzeko informazioa lortu du.
- d) Erabilitako baliabidearekin koherenteak diren kultura-animazioko jarduerak egin ditu.
- e) Kultura-jarduerak egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko teknikoak eta ikus-entzunezkoak maneiatu ditu.
- f) Jardueren garapenean egokitzapenak egin ditu, behar bereziak dituzten kolektiboen partaidetza ahalbidetzeko.
- g) Ekipamenduak muntatzean eta egiaztatzean jardun-protokoloak ezarri ditu.
- h) Prebentzio eta segurtasuneko protokoloak errespetatzearen garrantzia baloratu du.

7.– Kultura-produktuen eta -programen komunikazioko eta marketineko jarduerak egiten ditu, eta proiektuak sustatzeko eta hedatzeko estrategiak eta teknikak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hedabideek kultura-animazioko proiektuen sustapenean eta hedapenean duten garrantzia argudiatu du.
- b) Kultura-animazioko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko bitarteko, estrategia eta teknika nagusiak deskribatu ditu.

c) Kultura-produktuen eta -programen sustapen-kanpainen arrakastan eragina duten faktoreak identifikatu ditu.

d) Kultura-animazioko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko hainbat euskarritan landu ditu baliabideak.

e) Kultura-animazioko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko kanpainak diseinatu ditu, askotariko baliabideak erabilia.

f) Sustapen- eta hedapen-kanpaina bateko oinarrizko elementuak identifikatu ditu.

g) Kultura-jarduerak hedatzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu.

h) Kultura-animazioko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko prozesuetan, informazioaren egiazkotasuna bermatu beharra justifikatu du.

8.– Kultura-jarduna kontrolatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko jarduerak egiten ditu, eta, horretarako, kalitate-irizpideak aplikatzen ditu eta, hala badagokio, inplikaturako eragileen parte-hartzea bermatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kultura-jarduna ebaluatzeko prozedura definitu du.

b) Kultura-jarduna ebaluatzeko teknikak, tresnak, irizpideak eta adierazleak hautatu ditu, jarduna egiteko testuinguruari erreparatuta.

Komunikazioan parte hartzen duten faktoreak, betiere gizarte-dinamizazioaren esparruan.

Gizarte-esparruan informazioa kudeatzea:

- Informazio-bideak eta -iturriak.

- Datu-baseak.

Parte-hartzearen balorazioa, gizarte-garapenaren ardatz gisa.

Informazio-bideei eta -iturriei buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia.

4.– Elkarte-ehunari laguntzeko eta euskarri teknikoa emateko jardunak egitea.

Entitateen eta elkarten antolamendu-egitura eta egitura funtzionala aztertzea.

- Lanaren antolamendua.

- Komunikazioa.

- Barne-prestakuntza.

- Langileen kudeaketa.

- Profilak eta eginkizunak.

Administrazio-antolamendua: artxiiboak eta prozedurak.

Elkarte-ehuna laguntzeko baliabideak hautatzea.

Baliabideak lortzea.

Elkarte-ehuna garatzean eta mantentzean, gizarte-dinamizatzailearen zeregina eta eginkizunak deskribatzea.

Gobernuz kanpoko erakundeak (GBE), fundazioak eta gizarte-izaerako elkarteak:

– Esparru historikoa.

Lege-esparrua:

– Elkarreei buruzko legea.

– Fundazioei buruzko legea.

Elkartea/fundazioa sortzeko prozesua.

– Fase bakoitzaren ezaugarriak.

Giza baliabideak elkarreetan, fundazioetan eta gobernuz kanpoko erakundeetan.

Profesionalaren zeregina eta eginkizunak elkar-ehunari laguntzeko eta euskarri teknikoak emateko garaian.

Herri-administrazioa elkar-ehunari laguntzan.

Finantziario motak: diru-laguntzak, hitzarmenak, kontratuak eta zerbitzugintza.

Parte-hartzearen balorazioa, gizarte-garapenaren ardatz gisa.

Informazio-bideei eta -iturriei buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia.

5.– Gizarte-bitartekaritzako prozesuak garatzea.

Gizarte-bitartekaritzako prozesuak egitea:

– Etapak identifikatzea. Fase bakoitzaren ezaugarriak.

– Gizartean gatazkak kudeatzeko teknikak aplikatzea.

– Gizarte-bitartekaritzako erabakiak hartzea. Ezaugarriak eta baldintzak.

– Gizarte-bitartekaritzan tartean direnen zeregina.

– Profesionala bitartekaritza-prozesuetan. Funtzioak eta trebetasunak.

Bitartekaritza-prozesuen ebaluazioa eta jarraipena egitea:

– Gizarte-bitartekaritzako kanpo-ebaluatzaileekiko koordinazioa.

– Bitartekaritza-prozesuarekin lotzen den dokumentazioa betetzea.

Gizarte-esparruko gatazken kudeaketa:

– Ezaugarriak.

– Ohiko gatazken definizioa eta motak.

– Gatazkaren osagaiak gizarte-esparruan.

– Gatazkaren zikloak.

Gizarte-bitartekaritza:

- Motak, ezaugarriak eta protagonistak, gizarte-esparruko gatazken kudeaketan.
- Bitartekaritza-prozesua gizarte-dinamizazioan.
- Gizarte-bitartekaritzaren printzipioak.
- Aplikazio-esparruak.
- Gizarte-bitartekaritzaren onuradunak.
- Gizarte-bitartekaritzaren alde onak eta txarrak.

Prozesuarekin lotzen den informazioa fidagarria, baliozkoa eta konfidentziala izatearen beharra baloratzea.

6.– Gizarte-proiektuak ebaluatzeko jarduerak egitea.

Partaidetza-prozesuak ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak.

Eragileen arteko harremanak eta koordinazio-maila ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak.

Komunikazio-estrategiak eta -tresnak ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak. Informazioaren hedapenaren eta inpaktuaren adierazleak.

Partaidetza ebaluatzea:

- Teknikak eta tresnak.
- Teknikak eta tresnak eragileetara egokitzea.

Gizarte-arloko txostenak eta memoriak egitea.

- Gizarte-eragileetara egokitzea.

Ebaluazioa gizarte-arloan: ezaugarriak eta prozesua.

Kanpo-ebaluatzaileekiko koordinazioa.

Emaitzak aurkeztea eta hedatzea.

Gizarte-esparruko kalitatearen kudeaketa.

Prozesuarekin lotzen den informazioa fidagarria, baliozkoa eta konfidentziala izatearen beharra baloratzea.

9. lanbide-modulua: Gazteentzako informazioa.

Kodea: 1129.

Kurtsoa: 2.a.

Iraupena: 100 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 7.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Gazteentzako informazio-zerbitzuen testuingurua ezaugarritzen du, lege- eta eskumen-esparrua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gazteentzako informazio-zerbitzuen antolamendua eta kudeaketa deskribatu du, eta beste informazio-zerbitzu batzuekiko berariazotasuna egiaztatu du.

b) Gazteentzako informazio-zerbitzuak arautzen dituen autonomia-erkidegoko legeria identifikatu du.

c) Gazteentzako informazio-zerbitzuaren giza baliabideak eta dagozkien funtzioak identifikatu ditu, betiere titulazioen eta prestakuntzaren arabera.

d) Beharrezko baliabide materialak eta espazialak identifikatu ditu.

e) Gazteentzako informazio-programetan eta -proiektuetan parte hartzen duten baliabide materialak eta ekonomikoak (aurrekontuak, arauak eta diru-laguntzen motak, besteak beste) kudeatzeko elementuak definitu ditu.

f) Gazteentzako informazio-zerbitzuak finantzatzeko bideak bereizi ditu.

g) Gazteentzako informazioaren harreman-baliabideak baloratu ditu.

2.– Gazteentzako informazioan parte hartzea planifikatzen du, eta, eginkizun horretan, gazteentzako informazio-zerbitzuaren egitura, eskariak eta hedabideak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gazteen beharrak eta eskariak deskribatu ditu, indarrean dagoen legeria aplikatuta, eta erreferentziazko plan estrategikoen arabera, betiere gazteentzako informazioaren printzipio deontologikoak kontuan hartuta.

b) Gazteei buruzko dokumentazio-iturriak bereizi ditu: gazte-behategiak, azterlan soziologikoak, liburutegi espezializatuak, erroldak eta argitalpenak, besteak beste.

c) Informazioa, orientazioa eta aholkularitza hautatzeko eta lantzeko teknikak identifikatu ditu, espazio fisikoetako eta birtualetako erabiltzaile gazteekin bat eginda.

d) Informazioaren hizkuntza eta euskarriak identifikatu ditu, ingurunera eta hartzaileen zirkuntantzia soziokulturaletara eta hizkuntza-zirkunstantzietara egokituta.

e) Informazioa eta dokumentazioa transmititzen dituzten hedabideak deskribatu ditu.

f) Gazteentzako informazio-zerbitzuetan gazteen eskariak biltzeko sistemak identifikatu ditu, arreta eta informazioko prozesua hobetzea errazten dutenak.

g) Gazteen eskariei erantzun pertsonalizatua emateko prozedurak aplikatu beharra justifikatu du.

h) Praktika onak eta horien trukeak baloratu ditu hobekuntzak eta berrikuntzak ezartzeko bide gisa.

3.– Gazteentzako informazio-baliabideak hautatzen ditu, informazioa bilatzeko eta berreskuratzeko teknikekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gazteekin erabili beharreko informazio-baliabideak definitu ditu.

b) Informazio-baliabideak sailkatu ditu, gazteen beharrak erreferentziaz hartuta.

- c) Gazteentzako etxebizitza-zerbitzuei buruzko baliabideak deskribatu ditu.
- d) Gazteentzako enplegu-zerbitzuei buruzko baliabideak baloratu ditu.
- e) Gazteentzako prestakuntza-zerbitzuen baliabideak deskribatu ditu.
- f) Gazteentzako aisialdiko eta denbora libreko zerbitzuen baliabideak hartu ditu aintzat.
- g) Gazteentzako mugikortasun-zerbitzuei buruzko informazio-baliabideak deskribatu ditu.

4.– Gazteentzako informazio- eta aholkularitza-ekintzak egiten ditu, eta hautemandako beharrek lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gazteentzako dauden programak hartu ditu aintzat.
- b) Gazteentzako informazio-programetan aholkularitza-tekniken oinarritzko printzipioak identifikatu ditu.
- c) Gazteen emantzipazio-programen garrantzia argudiatu du.
- d) Gazteentzako hainbat europar proiektu eta truke deskribatu ditu.
- e) Gazteentzako partaidetzako eta boluntariotzako programen beharra justifikatu du.
- f) Gazteentzako prestakuntza-programak definitu ditu.

5.– Prozesuaren jarraipena garatzen du, ebaluaziorako estrategia, teknika eta tresnen aukeraketa justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Erabiltzailearen eta parte-hartzeen jarraipenean aurreikusten diren protokoloak deskribatu ditu.
- b) Parte-hartzearen kontrol- eta jarraipen-prozesuaren uneak sekuentziatu ditu.
- c) Etengabeko behaketa- eta ebaluazio-sistemak aztertu ditu, gazteentzako informazioan zerbitzuen eta jardueren kalitatea hobetzeko.
- d) Gazteen eta hezitzaileen artean landu dituzte prestakuntza-ekintzak ebaluatzeko adierazleak.
- e) Gazteentzako informazioaren esparruko prestakuntza-jardueren ebaluaziorako protokoloak eta erregistroak identifikatu ditu.
- f) Gazteentzako informazio-zerbitzuaren sustatzaileari transmititu beharreko garrantzizko ebaluazioa islatuko duen memoria egiteko prozedurak identifikatu ditu.
- g) Ebaluazioa kalitate-elementu gisa baloratu du.

B) Edukiak:

1.– Gazteentzako informazio-zerbitzuen testuingurua ezaugarritzea.

Gazteentzako informazio, orientazio eta aholkularitzako prozesua aztertzea.

Gazteentzako informazio-zerbitzuak antolatzea.

Gazteentzako informazio-zerbitzuak kudeatzea.

Gazteentzako informazio, orientazio eta aholkularitzako prozesuak. Gazteentzako informazioaren historia.

Gazteentzako informazioaren oinarriak eta printzipioak.

Generoaren ikuspegia, gazteentzako informazio, orientazio eta aholkularitzako prozesuaren analisisan.

Gazteentzako informazioa gazte-politikan.

Gazteentzako informazioaren lege- eta araudi-esparrua. Administrazio-prozedura. Datuen babesa. Gazteentzako informazio-zerbitzuen tipologia.

Gazteentzako informazio-zerbitzuen tipologia.

Gazteentzako informazio-sareak.

Gazteentzako informazio-zerbitzuetako kalitate-sistemak.

Baliabide materialak gazteentzako informazio-zerbitzuetan: elementu fisikoak. Informazio-espazioen antolamendua.

Baliabide ekonomikoak: aurrekontua.

Diru-laguntzak.

Giza baliabideak gazteentzako informazio-zerbitzuetan: ikuspegi profesionala. Profesionalen arteko koordinazioa.

Sinergiak gazteentzako informazioan: zeharkakotasuna, elkarlana eta sareko lana. Gazteentzako informazioaren harreman-baliabideak.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

Ekimena izatea.

2.– Gazteentzako informazioan parte hartzearen plangintza.

Gazteentzako informazioa lantzea eta hedatzea.

Gazteentzako informazio-kanpainak diseinatzea eta antolatzea.

Espazio fisikoetan eta birtualetan informazioa eta dokumentazioa hautatzea eta tratatzea.

Gazteentzako informazioa hedatzea: euskarriak, argitalpen fisikoak eta birtualak, gazteentzako informazioan.

Gazteentzako informazioaren dinamizazioa eta marketina egitea.

Gazteen errealitatearen profil psikosoziala.

Parte-hartzearen ingurune geografikoen eta soziokulturalen ezaugarri bereizgarriak.

Gazteen esparruko gizarte-ikerketako teknikak.

Gazteen behategiak.

Gazteei buruzko informazio- eta dokumentazio-iturriak.

Parte-hartzea gazteekiko lanean. Informazioa, ekipamenduak eta jarduerak.

Gazte-informazioa planifikatzeko teknikak.

Gazteentzako informazioa lantzea eta hedatzea:

Gazteentzako informazioa lantzeko metodologia: adierazpen-hizkuntzak. Informazio-fitxa.

Espazio fisikoetan eta birtualetan informazioa eta dokumentazioa hautatzea eta tratatzea.

Jardunbide onen hedapena eta transferentzia.

Sormen-teknikak eta adierazpen-teknikak.

Gazteentzako informazio-proiektuen eta gizarte- eta hezkuntza-partaidetzako proiektuen berrikuntza: sormen-teknikak eta motibazio-teknikak.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

Ekimena izatea.

3.– Gazteentzako informazio-baliabideak hautatzea.

Gazteentzako dauden baliabideak aztertzea.

Gazteentzako informazio-gidak.

Etxebizitza-zerbitzuak eta baliabideak.

Laneko baliabideak eta lan-zerbitzuak. Lan-atariak. Lan publikoari buruzko informazioa. Gazteen emantzipaziorako bulegoen lurralde-sarea. Gazteen emantzipaziorako mugaz gaindiko bulegoa.

Prestakuntza-baliabideak: prestakuntza-eskolak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak. Lanaren bilaketa aktiboa.

Aisialdirako eta denbora librerako baliabideak. Gazte-aterpeen Espainiako sarea.

Gazte-aterpeen nazioarteko federazioa. Boluntariora-zerbitzua. Hizkuntza-kluba.

Mugikortasunerako baliabideak. Bidaiari gazteentzako gida turistikoak. Gazte-ostatuak. Nazioarteko organismoak.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

Ekimena izatea.

4.– Gazteentzako informazio- eta aholkularitza-ekintzak egitea.

Gazteentzako programak hautatzea.

Gazteentzako programei buruzko informazio- eta aholkularitza-ekintzak egitea.

Aholkularitzako estrategiak aplikatzea. Jarduteko jarraibideak.

Informazio- eta aholkularitza-programak.

Emantzipazio-programak.

Europar proiektuen programak eta gazteen trukeak.

Gazteak trukatzeko proiektuak (Europa, Latinoamerika eta abar).

Gazteen partaidetzako eta boluntariotzako programak.

Gazteentzako prestakuntza-programak.

Beste programa batzuk.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

Komunikazio-trukeak gaineratzen duena baloratzea eta errespetatzea.

5.– Prozesuaren jarraipena garatzea.

Ebaluazioen datuak aztertzea.

Gazteentzako informazioko prestakuntza-jardueren txostenak eta memoriak lantzea.

Gazteentzako informazio-prozesuaren ebaluazioa.

Ebaluazio parte-hartzaileko metodologia eta tresnak.

Gazteentzako informazioko prestakuntza-jardueren ebaluazio-protokoloak eta -erregistroak.

Gazteentzako informazio-zerbitzuetako kalitate-kudeaketaren ebaluazioa.

Ebaluazioa baloratzea, etorkizuneko prestakuntza-ekintzetako kalitate-elementu gisa.

Parte-hartzearen ebaluazioan talde-lanak eta koordinazioak duten garrantzia baloratzea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

10. lanbide-modulua: Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin.

Kodea: 1130.

Kurtsoa: 2.a.

Iraupena: 100 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 7.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen testuingurua ezaugarritzen du, hezkuntzaren kontzeptu globalaren barruan hezkuntza ez-formalaren esparrua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hezkuntza ez-formalaren esparruan, gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen ezaugarriak deskribatu ditu.
- b) Gazteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen lege- eta eskumen-esparrua interpretatu du.
- c) Gazte-politikan hezkuntza ez-formalaren egitekoa eta garrantzia aztertu du.
- d) Hezkuntza ez-formaletik baloratu ditu prestakuntza-ekintzak, hartzailleek erabakiak hartzeko baliabide-iturri gisa.
- e) Hezkuntza ez-formala ezagutzeko prozedurak identifikatu ditu.

2.– Gazteei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diseinatzeko, horien eskariak eta beharrak eta lan egiteko metodologia aztertuta, hezkuntza ez-formalaren esparruan.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gazteen prestakuntza-beharrak eta -eskariak identifikatzeko teknikak eta tresnak ezarri ditu.
- b) Hezkuntza ez-formalean irakatsi eta ikasteko prozesua deskribatu du.
- c) Jarreraren garapenean eragina duten ezagutzak eskuratzeko aukera ematen duten ikaskuntza-dinamikak eta metodologiak deskribatu ditu.
- d) Gizarte demokratiko batean parte hartzeko jarrerak garatzeko hezkuntza ez-formalaren garrantzia argudiatu du.
- e) Erabakiak hartzeko baliabideak eskainiko dituzten orientazioko eta aholkularitzako prestakuntza-estrategiak diseinatu ditu.
- f) Guztientzako irisgarritasun- eta diseinu-irizpideak ezarri ditu, prestakuntza-ekintzak diseinatzean.
- g) Generoaren ikuspegia txertatu du prestakuntza-ekintzen diseinuan.
- h) Gazteekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea baloratu du, hezkuntza ez-formalaren ikuspegitik, gazteen garapen integralaren baliabide gisa.

3.– Prestakuntza-ekintzak antolatzen ditu, gazteentzako informazio-zerbitzuen hezkuntza-aukerak aztertuta. Era berean, metodologiak eta edukiak beste hezitzaile batzuekin koordinatzeko moduak antolatzen ditu, helburu komunak lortzera begira.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hezkuntza ez-formalean prestakuntza-eragileek duten zeregina deskribatu du.
- b) Europa-mailan, estatuan eta autonomia-erkidegoan ezarritako sareak sortzeko, mantentzeko eta erabiltzeko prozesuak eta sareko lana aztertu du.
- c) Sarean lan egiteko estrategiak diseinatu ditu.
- d) Gazteentzako topagune irisgarriak ezarri ditu.
- e) Gazteentzako informazio-zerbitzuetarako komunak diren prestakuntza-arloko helburuak, eskariak eta beharrak identifikatu ditu.

f) Prestakuntza-ekintzen diseinuan eta garapenean, eta lanbide arteko elkarlanerako eta koordinaziorako, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek dituzten aukerak deskribatu ditu.

g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez prestakuntza-eskaintzak hedatzeko tresnak hautatu ditu.

h) Gazteentzako prestakuntzan, informazio-sareak koordinatzeko zentroyen funtzioak deskribatu ditu.

4.– Hezkuntza ez-formaleko prestakuntza-ekintzak garatzen ditu, beharrezko baliabideak jardun-esparruaren berariazko ezaugarrien arabera hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hezkuntza ez-formaletik, gazteekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen esparruak identifikatu ditu.

b) Hainbat esparrutan gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku-hartzera zuzendutako jarduerak egin ditu.

c) Gazteentzako interesgarriak diren gaiak hautatu ditu.

d) Prestakuntza-ekintzak garatzeko dokumentu-iturriak eta -baliabideak hautatu ditu.

e) Esku-hartzearen helburuekin bat datozen azpiegiturak eta materialak hautatu ditu.

f) Azpiegiturak eta materialak antolatzeko prozedurak ezarri ditu, garapen integralaren eta parte hartzearen irizpideak kontuan izanik.

g) Prestakuntza-ekintzak garatzeko materialak landu ditu.

h) Prestakuntza-ekintzak garatzeko giro egokia sortzearen garrantzia baloratu du.

5.– Gazteekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak ebaluatzeko jarduerak egiten ditu, hezkuntza ez-formalaren berezko tresnak eta elementuak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hezkuntza ez-formalean prestakuntza-ekintzak ebaluatzeko sistemak identifikatu ditu.

b) Ebaluazio-sistema hautatu du, garatutako prestakuntza-jardueraren arabera.

c) Prestakuntza-ekintzan parte hartzen duten pertsonen informazioa biltzeko ebaluazio- eta erregistro-protokoloak landu ditu.

d) Prestakuntza-ekintzak ebaluatzeko adierazleak ezarri ditu.

e) Prestakuntza-ekintzen ebaluazio parte-hartzailea ahalbidetuko duten estrategiak, teknikak eta tresnak hautatu ditu.

f) Prestakuntza-ekintzak ebaluatzean, datuak aztertzekeo estrategiak eta teknikak erabili ditu.

g) Ikaskuntza ez-formala ebaluatzeko eta ezagutzeko estrategiak identifikatu ditu.

h) Ebaluazioaren emaitzen erabilera-protokoloak ezarri ditu, etorkizuneko ekintzen kalitatea hobetzera begira.

B) Edukiak:

1.– Gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloan esku-hartzearen testuingurua ezaugarritzea.

Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren arloko gazte-politikak aztertzea.

Hezkuntza ez-formalaren esparruan, gazteekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea.

Gazte-planak.

Hezkuntza ez-formala gazteria-politiketan. Hezkuntza-helburuak.

Ezaugarriak eta funtzioak. Hezkuntza ez-formalaren garrantzia gazteria-politiketan.

Prozedurak.

Gazteek erabakiak hartzeko prozesuetan gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak duen garrantzia baloratzea.

Hezkuntza ez-formala ezagutzea.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

2.– Gazteei zuzendutako prestakuntza-ekintzak diseinatzea.

Gazteen beharrak eta prestakuntza-eskariak aztertzea.

Hezkuntza ez-formalaren irakatsi eta ikasteko prozesua aztertzea.

Prestakuntza-proiektuak diseinatzea. Prestakuntza-jarduerak.

Prestakuntza aktiboaren metodoak aztertzea.

Prestakuntza-beharrak hautemateko metodoak.

Estrategiak, teknikak, tresnak eta baliabideak.

Berariazko ezaugarriak. Ikaskuntzako dinamikak eta metodologiak.

Parte-hartzea, ikaskuntza-sistema gisa.

Prestakuntza-ekintzen motak:

– Erabakiak hartzeko estrategiak. Orientazioa eta aholkularitza.

– Sentsibilizazioa.

– Parte-hartzea sustatzeko motibazioa.

Guztientzako irisgarritasun- eta diseinu-irizpideak, prestakuntza-ekintzak diseinatzean.

Generoaren ikuspegia gazteei zuzendutako proiektuetan.

Hezkuntza ez-formalak gazteen garapen integralerako duen garrantzia baloratzea.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

Ekimena izatea.

3.– Prestakuntza-ekintzak antolatzea.

Hezkuntza ez-formalean prestakuntza-eragileen profila aztertzea.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez prestakuntza-ekintzak hedatzea.

Sareak sortzeko, mantentzeko eta erabiltzeko prozesuak aztertzea.

Prestakuntzako helburu, behar eta eskari komunak identifikatzea.

Kaleko hezitzailea: zeregina eta eginkizunak.

Talde-lana hezitzaileekin:

- Koordinazioa, metodologiak eta kudeaketa.
- Lanbide arteko koordinazioa eta elkarlana prestakuntza-ekintzen diseinuan eta garapenean.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologien aukerak.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen sarea eta sareko lana:
- Europako, estatuko eta autonomia-erkidegoko sareak.
- Gazteentzako prestakuntzako informazio-sareen koordinazio-zentroak.
- Sarean lan egiteko estrategiak.

Gazteei zuzendutako topaguneak:

- Gazteentzako informazio-zerbitzua, hezkuntza-espazio gisa.
- Sormenera zuzendutako espazioak.

Beste batzuk.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek gazteekin esku-hartzeko prozesuetan duten garrantzia baloratzea.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

4.– Hezkuntza ez-formaleko prestakuntza-ekintzak garatzea.

Prestakuntza-ekintzak egitea:

- Materialak hautatzea eta prestatzea.
- Azpiegiturak eta materialak antolatzea.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen esparruak:

- Alfabetizazio informazionala (ALFIN).
- Gizarte-trebetasunen garapena.
- Balioetako heziketa.

- Ohitura osasungarrien, iraunkortasuneko eta hiritartasuneko sustapena.
- Genero-indarkeriaren prebentzioa.
- Emantzipazio-prozesuetako prestakuntzaren oinarriak.
- Beste batzuk.

Prestakuntza-ekintzak:

- Dokumentu- eta baliabide-iturriak.
- Gazteekin lan egiteko estrategiak eta jardun-jarraibideak.

Prestakuntza-ekintzak garatzeko giro egokia ezartzearen garrantzia baloratzea.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Bestearen nortasunarekiko errespetua eta tolerantzia izatea.

Malgua izatea eta aldaketara egokitzea.

Ekimena izatea.

5.– Gazteekin gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea ebaluatzeko jarduerak egitea.

Prestakuntza-jarduerak ebaluatzeko protokoloak eta erregistroak egitea.

Prestakuntza-jardueren txostenak eta memoriak lantzea.

Hezkuntza ez-formalean ebaluazio parte-hartzailea egitea.

Ikaskuntza ez-formalaren ebaluazio eta ezagupeneko estrategiak.

Ebaluazioetako datuak aztertzekeo estrategiak eta teknikak.

Gazteekin egin beharreko gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzean, ebaluazioa kalitate-elementu gisa: kalitate-adierazleak eta -irizpideak.

Pertsona hartzaileek ebaluazio-prozesuan parte hartzearen garrantzia baloratzea.

Lanbidearekiko inplikazioa eta konpromisoa izatea.

Ekimena izatea.

11. lanbide-modulua: Animazio soziokulturalaren testuingurua.

Kodea: 1131.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 132 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 7.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Animazio soziokulturala testuinguruan kokatzen du, hezkuntza ez-formalaren ezaugarriak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gaur egungo gizartearen ezaugarriak azaldu ditu.

- b) Gaur egungo gizarteko esku-hartze soziokulturalaren ereduak aztertu ditu.
- c) Hezkuntza ez-formala, animazio soziokulturaleko prozesuen jardun-espazio gisa, aztertu du.
- d) Hezkuntza ez-formalaren jardun-eremuak deskribatu ditu.
- e) Hezkuntza ez-formala eta animazio soziokulturala lotu ditu.
- f) Hezkuntza-prozesuen oinarri gisa, etengabeko hezkuntzaren garrantzia baloratu du.

2.– Animazio soziokulturaleko prozesuak ezaugarritzen ditu, esku-hartzearen printzipioak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartze soziokulturalaren oinarri pedagogikoak identifikatu ditu.
- b) Historian zehar animazio soziokulturalak izandako garapena deskribatu du.
- c) Animazio soziokulturalarekin lotzen diren kontzeptuak lotu ditu.
- d) Animazio soziokulturalaren printzipioak deskribatu ditu.
- e) Animazio soziokulturala gizartearen garapenaren sustatzaile gisa baloratu du.

3.– Esku-hartze soziokulturalaren prozesuetan parte hartzen duten kolektiboen ezaugarriak zehazten ditu, horien beharrak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Pertsonen eboluzio-uneak definitu ditu.
- b) Hainbat kolektiboren ezaugarri psikologikoak eta sozialak aztertu ditu.
- c) Esku-hartze soziokulturaleko prozesuetara zuzendutako pertsonen beharrak deskribatu ditu.
- d) Esku hartzeko espazioak antolatu ditu, pertsona guztiei iristen zaiela bermatuta.
- e) Animazio soziokulturaleko espazioak erabiltzaileen beharrekin lotu ditu.
- f) Esku-hartze soziokulturaletan prebentzio- eta segurtasun-neurriak ezarri ditu, jardun-kolektiboen beharrak kontuan hartuta.
- g) Erabiltzaileekiko errespetuaren eta tolerantziaren garrantzia baloratu du.

4.– Animazio soziokulturaleko esparruak ezaugarritzen ditu, hartzaileen ezaugarriak eta beharrak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Animazio soziokulturalaren esparruak deskribatu ditu.
- b) Jardun-esparruak erabiltzaileen ezaugarriekin lotu ditu.
- c) Animazio soziokulturaleko arloen lege-esparrua aztertu du.
- d) Animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren funtzioak identifikatu ditu, jardun-esparruak kontuan hartuta.
- e) Informazioaren teknologiak erabili ditu, erabiltzaileen beharrei buruzko informazio-iturri gisa.

5.– Animazio soziokulturaleko zerbitzuak eta programak ezaugarritzen ditu, erabiltzaileen beharrek eta ezaugarriekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Estatuaren eta autonomia-erkidegoaren mailako animazio kulturaleko politikak aztertu ditu.
- b) Hirugarren adineko pertsonekin esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuak eta programak ezaugarritu ditu.
- c) Minusbaliotasunak dituzten pertsonekin esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuak eta programak deskribatu ditu.
- d) Esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuak eskuratzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Informazioaren teknologien bitartez, animazio soziokulturaleko zerbitzuak deskribatu ditu.
- f) Proiektu sozialaren garrantzia baloratu du, animazio soziokulturalean esku hartzeko erreminta gisa.
- g) Esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuetan aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak baloratu ditu.

B) Edukiak:

1.– Animazio soziokulturala testuinguruan kokatzea.

Gaur egungo gizartean esku-hartze soziokulturaleko ereduak aztertzea.

Gaur egungo gizartearen ezaugarriak.

– Kontsumo eta aisialdiko gizartea.

– Ongizatearen gizartea.

Hezkuntza ez-formala.

– Hezkuntza ez-formalaren jardun-arloak.

– Hezkuntza ez-formaleko baliabideak.

– Animazio soziokulturala eta hezkuntza ez-formala.

Animazio soziokulturala eta hezkuntza ez-formala.

Egungo gizartearen konfigurazioak animazio soziokulturalaren garapenean duen garrantzia.

2.– Animazio soziokulturaleko prozesuak ezaugarritzea.

Animazioaren alderdi historikoak eta ebolutiboak aztertzea:

– Animazio soziokulturaleko kontzeptua eta definizioa.

– Animazio soziokulturalaren kontzeptuaren bilakaera historikoa.

Gizarte-pedagogia eta animazio soziokulturala.

Animazio soziokulturala.

Animazio soziokulturalaren printzipioak.

Animazio soziokulturalaren garrantzia gizartearen garapenean sustatzaile gisa.

3.– Esku-hartzeko kolektiboen ezaugarriak zehaztea.

Espazioak esku-hartzeko kolektiboen beharren arabera antolatzea.

Psikologia ebolutiboa. Pertsonen garapen ebolutiboa.

Esku-hartze soziokulturalaren hartzaileen ezaugarri psikologikoak eta sozialak:

- Haurrentzat.
- Gazteentzat.
- Helduentzat.
- Hirugarren adinekoentzat.
- Minusbaliotasunak dituzten pertsonentzat.

Esku-hartze soziokulturalan kolektiboek dituzten beharrak:

- Haurrek eta gazteek.
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.
- Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak.

Prebentzioa eta segurtasuna esku-hartze soziokulturalan.

Kolektiboen beharreganako errespetua eta tolerantzia baloratzea.

4.– Animazio soziokulturaleko esparruak ezaugarritzea.

Jardun-esparruak eta erabiltzaileen beharrak aztertzea.

Esku-hartze soziokulturaleko esparruak:

- Gizarte-garapena.
- Kultura-animazioa.
- Aisiako eta denbora libreko animazioa.

Animazio soziokulturala eta hirugarren adina:

- Hirugarren adinerako animazio-baliabideak eta ekipamenduak.

Animazio soziokulturala eta minusbaliotasuna duten pertsonak:

- Minusbaliotasunak dituzten pertsonentzako animazioko baliabideak eta ekipamenduak.

Animatzaile soziokulturalaren funtzioak:

- Animatzaile soziokulturala eta hirugarren adineko pertsonak.
- Animatzaile soziokulturala eta minusbaliotasuna duten pertsonak.

Teknologia berriak informazio-iturri gisa.

Errespetuaren eta tolerantziaren garrantzia esku-hartze soziokulturalan.

5.– Esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuak eta programak ezaugarritzea.

Esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuak aztertzea.

Espazioak mendekotasun-egoeran dauden pertsonetara egokitzea.

Animazio soziokulturalaren lege-esparrua.

– Estatukoak.

– Autonomia Erkidegokoak.

Animazio soziokulturaleko programak:

– Haurrentzat eta gazteentzat.

– Hirugarren adineko pertsonentzat.

– Minusbaliotasunak dituzten pertsonentzat.

– Beste kolektibo batzuentzat.

Animazio soziokulturaleko zerbitzuak eta teknologia berriak.

Irisgarritasuna esku-hartze soziokulturaleko zerbitzuetan.

Animazio soziokulturaleko programek duten garrantzia baloratzea.

12. lanbide-modulua: Animazio soziokulturaleko eta turistikoko proiektua.

Kodea: 1132.

Kurtsoa: 2.a.

Iraupena: 50 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzat: 5.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen eredu-
duzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren
edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.

b) Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak adierazita.

c) Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.

d) Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.

e) Aurreikusten diren eskaerei erantzuteko behar den proiektu mota identifikatu du.

f) Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.

g) Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.

h) Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.

i) Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2.– Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.

b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.

c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.

d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien iristea identifikatu du.

e) Egiteko beharrezkoak diren baliabide naturalak eta pertsonalak aurreikusi ditu.

f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.

g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.

h) Diseinatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3.– Proiektua gauzatzea planifikatzen du, eta esku hartzeko plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak sekuentziatu ditu eta osatzeko premien arabera antolatu ditu.

b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.

c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.

d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.

e) Proiektua ezartzeari datxezkion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta ekipamenduak definitu ditu.

f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.

g) Ezartzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.

h) Proiektua ezartzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4.– Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabiltako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatzeko prozedura definitu du.

b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.

c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta izan daitekeen konponbidea ebaluatzeko eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.

d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.

e) Jarduerak eta proiektua ebaluatzeko beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.

f) Erabiltzaileen edo bezeroen ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du eta berariazko dokumentuak landu ditu.

g) Proiektuaren baldintza-agiria betetzen dela bermatzeko sistema ezarri du, halakorik dagoe-nean.

5.– Proiektua aurkeztu eta defendatzen du. Horretarako, eraginkortasunez erabiltzen ditu proiektua gauzatzean eta heziketa-zikloko ikasteko prozesuan bereganatutako kompetentzia teknikoak eta pertsonalak.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.

b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena pres-tatu du.

c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.

d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atse-gina eta eraginkorra lortu du.

e) Proiektua babestu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderari.

13. lanbide-modulua: Laneko prestakuntza eta orientabidea.

Kodea: 1133.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 99 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzak: 5.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Lan-munduratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako hautabideak identifikatu ondoren, lan-au-kerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.

b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.

c) Profilaria lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.

d) Tituludunarentzako lanerako eta lan-munduratzeko hobi nagusiak identifikatu ditu.

- e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu dira.
- f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
- g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2.– Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eragin-kortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilaria lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lan-talde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundearen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3.– Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4.– Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.

b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak zerrendatu ditu.

c) Gizarte Segurantzako sistemaren dauden araubideak identifikatu ditu.

d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.

e) Langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuantak identifikatu ditu.

f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.

g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.

h) Oinarrizko kontribuzio mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5.– Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneko lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.

b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.

c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.

d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.

e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.

f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.

g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6.– Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.

b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.

c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.

d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.

e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.

f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.

g) Larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7.– Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.

b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.

c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.

d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.

e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.

f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

B) Edukiak:

1.– Lan-munduratzeko eta bizialdi osoko ikaskuntzako prozesua.

Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.

Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.

Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.

Norberaren ibilbidea planifikatzea:

– Beharrekin eta hobespeneekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.

– Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak.

Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea.

Lan-munduratzeko beharrezko dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.

Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.

Erabakiak hartzeko prozesua.

Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.

Europan ikasi eta enplegatzeako aukerak. Europass, Ploteus.

Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.

Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.

Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.

Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea.

Lanarekiko konpromisoa izatea. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2.– Gatazka eta lan-taldeak kudeatzea.

Antolakundea pertsona-talde gisa aztertzea.

Antolamendu-egiturak aztertzea.

Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.

Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.

Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.

Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.

Lan-taldeen sorrera aztertzea.

Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.

Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.

Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarritzko elementu gisa.

Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak.

Gatazkaren definizioa: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.

Gatazkak ebatzi edo deuseztatzeko metodoak: bitartekotza, adiskidetzea eta arbitrajea.

Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.

Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.

Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.

Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.

Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3.– Lan-kontratuaren ondoriozko lan-baldintzak.

Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.

Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean (LELTB) arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.

Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.

Nomina interpretatzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.

Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren direktibak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.

Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.

Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.

Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).

Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.

Soldata-kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ).

Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.

Ordezkaritza sindikala: Sindikatua kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.

Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.

Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana, etab.

Lana arautzeko beharra baloratzea.

Dagokion lanbide-jarduerako sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ezagutzeko interesa izatea.

Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.

Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboetara dagokienez.

Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4.– Gizarte Segurantzaren enplegua eta langabezia.

Gizarte Segurantzaren sistema orokorra unibertsal izateak duen garrantzia aztertzea.

Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.

Gizarte Segurantzaren sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.

Enpresaburuaren eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.

Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.

Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.

Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea.

Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5.– Arrisku profesionalak ebaluatzea.

Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.

Arrisku-faktoreak aztertzea.

Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.

Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.

Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.

Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea.

Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.

Arrisku profesionalaren kontzeptua.

Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarritzko elementu gisa.

Profilari lotutako lan-ingurunearen berriazko arriskuak.

Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.

Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.

Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.

Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.

Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6.– Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea.

Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarritzko prebentzio-tresna gisa.

Laneko Arriskuen Prebentziolari (LAP) buruzko oinarritzko araua aztertzea.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.

Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.

Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.

Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.

Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.

Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Erantzukizun mailak enpresan.

Laneko Arriskuen Prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.

Prebentzioaren kudeaketa enpresan.

Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko teknika).

Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.

Prebentzioaren plangintza enpresan.

Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.

Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.

Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) agente gisa duen posizioa baloratzea.

Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.

Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea.

7.– Enpresan prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzea.

Norbera babesteko teknikak identifikatzea.

Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.

Lehen sorospenetako teknikak aplikatzea.

Larrialdi-egoerak aztertzea.

Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.

Langileen osasuna zaintzea.

Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.

Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.

Larrialdi medikoa/lehen sorospenak. Oinarrizko kontzeptuak.

Seinale motak.

Larrialdien aurreikuspena balioestea.

Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.

Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea.

14. lanbide-modulua: Enpresa eta ekimen sortzailea.

Kodea: 1134.

Kurtsoa: 1.a.

Iraupena: 99 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 4.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.

b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.

c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.

d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enpleguaren lanerako ekimena aztertu du.

e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.

f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.

g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2.– Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-idea aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.

b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.

c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.

d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.

e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.

f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoak eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.

g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.

h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.

i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.

j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3.– Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagoen forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarritzko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.

b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.

c) Berriazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.

- d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak enpresa txiki eta ertain bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) Enpresa txiki eta ertain bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4.– Enpresa txiki eta ertain baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak egiten ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likidezari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

B) Edukiak:

1.– Ekimen sortzailea.

Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).

Ekintzaileen funtsezko faktoreak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko konpetentzia, plangintza eta prestakuntza.

Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.

Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.

Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.

«Enpresaburu» kontzeptua.

Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.

Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.

Ekintzaileen arteko lankidetzak.

Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.

Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.

Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.

Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.

Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2.– Enpresa-ideiak, ingurunea eta haien garapena.

Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.

Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.

Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.

Lanbide-arloko ereduak enpresa bat aztertzea.

Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.

Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.

Erabakitako ideia gainean berrikuntza-eraketak egitea.

Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen iraunkorra).

Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.

Merkatu azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.

Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.

Genero-berdintasuna errespetatzea.

Enpresa-etika baloratzea.

3.– Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea.

Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.

Produktzio-plana prestatzea.

Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.

Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.

Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.

Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.

Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.

Zerga-arloa enpresetan.

Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).

Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.

Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.

Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotz ebaluatzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

4.– Administrazio-funtzioa.

Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.

Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.

Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak eta letrak, besteak beste.

Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.

Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.

Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).

Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.

Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.

Administrazioko eta legezko izapideak betetzea.

15. lanbide-modulua: Lantokiko prestakuntza.

Kodea: 1135.

Kurtsoa: 2.a.

Iraupena: 360 ordu.

ECTS kredituetarako baliokidetzatza: 22.

A) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak.

1.– Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.

b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden eredu-zko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.

c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.

d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.

e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.

f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2.– Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezau-garrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:

– Lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.

– Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).

– Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.

– Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.

– Lan-talde barruko eta enpresan ezarritako hierarkiekiko harreman-jarrerak.

– Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.

– Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan lan-munduratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.

c) Lanbide-jarduerak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.

d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.

e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.

f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.

g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.

h) Taldearen gainerakoekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.

i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.

j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3.– Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, erakundean edo enpresan ezarritako arauen eta jarraibideen araberako teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduera prestatzeko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.

- b) Garatu beharreko lan-prozesuak prestatzearekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako arauen eta jarraibideen araberrako kontrol-prozedurak erabili ditu.
- d) Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduera garatuko den espazioen egokitzapen beharrak identifikatu ditu.
- e) Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduerari hasiera emateko irizpideak behar bezala aplikatu ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
- f) Zerbitzuaren hartzaileen beharrak ezagutu eta finkatu ditu, ezarritako protokoloak kontuan hartuta.
- g) Pertsona erabiltzaileekin lehen harremana izateko prozedurak behar bezala egin ditu, bitartekoak erabilia eta teknikak aplikatuta, ezarritako argibideen eta arauen arabera.
- h) Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduera prestatzeko prozesuan sortutako zailtasunak identifikatu ditu.

4.– Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak egiten ditu, eta, horretarako, garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotzen ditu ezarritako arauak eta jarraibideak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduera egiteko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu zereginak.
- d) Lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan izanik egin ditu lan-jarduera guztiak.
- e) Erabiltzaileei buruzko informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu du.
- f) Erabiltzaile, egoera edo zeregin motaren araberrako jarrera egokiak erabili ditu.
- g) Jarduerarako baliabide tekniko egokiak erabili ditu.
- h) Baliabide teknikoen erabileran ezarritako prozedurei jarraitu die.
- i) Erabilitako teknikak zerbitzuaren hartzaileen beharrekin lotu ditu.

5.– Segurtasun- eta higiene-irizpideak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jarduten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Legezko araudiarekin eta enpresaren beraren berarriazko araudiarekin lotzen diren nahitaez bete beharreko higiene- eta osasun-arauak ezagutu ditu.
- b) Higiene- eta osasun-arazoak edo segurtasun-arazoak eragin ditzaketan portaera edo jarrera guztiak ezagutu ditu.
- c) Jarduerarako arropa egokia erabili du.
- d) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta aplikatzekoa den legeriaren oinarriko alderdiak identifikatu ditu.

e) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.

f) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta ezabatzeko edo isurtzeko eragiketak aplikatu ditu.

6.– Egindako zerbitzua aztertzen du, esku hartzeko prozeduraren kalitate-irizpideekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Animazio soziokulturaleko edo turistikoko jarduera egiteko jasotako jarraibideen betetze maila baloratu du.

b) Norberaren jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozesuarekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.

c) Jarduerak egiteko moduarekiko jarrera kritikoa erakutsi du.

d) Zereginak egiteko ezarritako prozedurari jarraitu zaiola egiaztatu du.

e) Lanbide-jarduerak egitean, lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.

f) Erabilitako baliabideen eta tekniken egokitzapena argudiatu du.

UZTAILAREN 2KO 373/2013 DEKRETUAREN III. ERANSKINA

GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

1. atala.– Espazioak.

Prestakuntza Espazioa	Azalera (m ²) 30 ikasle	Azalera (m ²) 20 ikasle
Balio anitzeko gela	60	40
Gimnasio-aretoa, aldagelak, duxtak eta biltegia	480	480
Animazio soziokulturaleko eta turistikoko gela teknikoa	60	40

2. atala.– Ekipamenduak.

Prestakuntza Espazioa	Ekipamendua
Balio anitzeko gela	Eskola-altzariak: mahaiak, aulkiak, armairuak eta arbelak. Informatika-bitartekoak eta -tresneria: ordenagailuak sarean eta berariazko programak. Ikus-entzunezko tresneria eta baliabideak.
Gimnasio-aretoa, aldagelak, duxtak eta biltegia	Gimnasiarako koltxonetak eta tapizak. Horma-barrak. Aulki suediarak. Jauzietarako elementu bigunak eta plintoak. Tranpolinak eta tranpolin txikiak.
Animazio soziokulturaleko eta turistikoko gela teknikoa	Eszenografiako oinarrizko ekipamendua: entzumena eta argiztapena. Giñol eta txotxongiloetarako antzokia. Adierazpen plastikorako eta modelatzeko materiala. Perkusioko musika-tresnak: triangelua, klabeak, krotaloak, metalofonoa eta panderoa, besteak beste. Karakterizatzeko materiala: oinarrizko tresneria eta makillajea. Hormako ispilu handia. Oihalak. Mahai-jokoak. Joko tradizionalak: igela, bola-jokoa eta petanka, besteak beste.

UZTAILAREN 2KO 373/2013 DEKRETUAREN IV. ERANSKINA

IRAKASLEAK

1. atala.– Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena animazio soziokulturaleko eta turistikoko heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

Lanbide Modulua	Irakasleen Espezialitatea	Kidegoa
0020. Lehen laguntzak	Osasun eta laguntzako prozedurak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozesuak Irakasle espezialista	
0179. Ingelesa	Ingelesa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	Gizartearentzako zerbitzuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Gorputz Hezkuntza	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1124. Talde-dinamizazioa	Gizarte esku-hartzea Gorputz Hezkuntza	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1125. Kultura-animazioa eta -kudeaketa	Gizarte esku-hartzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak
	Ostalaritza eta turismoa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1126. Animazio turistikoa	Gizarte esku-hartzea Ostalaritza eta turismoa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
0344. Gizartean parte hartzeko metodologia	Gizarte esku-hartzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1128. Gizarte-garapena	Gizarte esku-hartzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1129. Gazteentzako informazioa	Gizartearentzako zerbitzuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
1130. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin	Gizarte esku-hartzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak
		Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak

Lanbide Modulua	Irakasleen Espezialitatea	Kidegoa
1131. Animazio soziokulturalaren testuingurua	Gizarte esku-hartzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1132. Animazio soziokulturaleko eta turistikoko proiektua	Gizartearentzako zerbitzuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
	Gizarte esku-hartzea Gorputz Hezkuntza Ostalaritza eta turismoa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1134. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
1135. Lantokiko prestakuntza.	Gizarte esku-hartzea	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak
	Gorputz Hezkuntza Ostalaritza eta turismoa	Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak
	Gizartearentzako zerbitzuak	Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoak

edo araudian ager daitekeen beste edozein irakasle-espezialitate.

2. atala.– Titulazio baliokideak irakaskuntzaren ondorioetarako.

Kidegoak	Espezialitateak	Titulazioak
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako katedradunak	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Enpresa-zientzietan diplomaduna. Lan-harremanetan diplomaduna. Gizarte-lanean diplomaduna. Gizarte-hezkuntzan diplomaduna. Kudeaketa eta Administrazio Publikoan diplomaduna.
Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleak	Gizarte esku-hartzea	Irakaslea, espezialitate guztietan. Gizarte-hezkuntzan diplomaduna. Gizarte-lanean diplomaduna.
	Ostalaritza eta turismoa	Turismoan diplomaduna.

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

3. atala.– Titulua osatzen duten lanbide-moduluak emateko beharrezko titulazioak hezkuntzakoaz bestelako administrazioetako titulartasun pribatuko nahiz publikoko ikastetxeentzat.

Lanbide Moduluak	Titulazioak
0020. Lehen laguntzak	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduko titulua edo beste zenbait titulu baliokide. Diplomaduna, ingeniari teknikoa edo arkitekto teknikoa edo dagokion graduko titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	
1129. Gazteentzako informazioa	
1132. Animazio soziokulturaleko eta turistikoko proiektua	
0179. Ingelesa	Lizentziaduna, ingeniaria, arkitektoa, edo dagokion graduko titulua edo beste zenbait titulu baliokide.
1124. Talde-dinamizazioa	
1125. Kultura-animazioa eta -kudeaketa	
1126. Animazio turistikoa	
0344. Gizartean parte hartzeko metodologia	
1128. Gizarte-garapena	
1130. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin	
1131. Animazio soziokulturalaren testuingurua	
1133. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
1134. Enpresa eta ekimen sortzailea	

edo araudian ager daitekeen beste edozein titulazio.

UZTAILAREN 2KO 373/2013 DEKRETUAREN V. ERANSKINA

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAMENDU OROKORRARI BURUZKO URRIAREN 3KO 1/1990 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN EZARRITAKO LANBIDE MODULUEN ETA HEZKUNTZARI BURUZKO MAIATZAREN 3KO 2/2006 LEGE ORGANIKOAREN BABESEAN EZARRITAKOEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

LOGSE Legean ezarritako Heziketa Zikloetan barnean hartzen diren Lanbide Moduluak (LOGSE, 1/1990)	Animazio Soziokulturaleko eta Turistikoko Heziketa Zikloko Lanbide Moduluak (LOE, 2/2006)
Atzerriko hizkuntza (ingeleza)	0179. Ingelesa
Aisiako eta astialdiko animazioa	1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak
Talde-dinamika eta -animazioa	1124. Talde-dinamizazioa
Kultura-animazioa	1125. Kultura-animazioa eta -kudeaketa
Kultura-jarduerak eta -baliabideak	1125. Kultura-animazioa eta -kudeaketa
Animaziorako komunikazio-teknikak	1126. Animazio turistikoa
Turismoaren esparruko animazioa	0344. Gizartean parte hartzeko metodologia
Gizartean parte hartzeko metodologia	0344. Gizartean parte hartzeko metodologia
Gizarte-garapena	1128. Gizarte-garapena
Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	1134. Enpresa eta ekimen sortzailea
Animazio turistikoko eta animazio soziokulturaleko teknikariaren lantokiko prestakuntza	1135. Lantokiko prestakuntza.

UZTAILAREN 2KO 373/2013 DEKRETUAREN VI. ERANSKINA

KONPETENTZIA ATALEN ETA MODULUEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK BALIOZKOTZEKO), ETA LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO EGOKITASUNA (HORIEK EGIAZTATZEKO)

1. atala.– Kualifikazioei buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera egiaztatzen diren konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin.

Konpetentzia Atala	Lanbide Modulua
UC1868_2: Aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea.	1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak
UC1869_3: Hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.	
UC1093_3: Aisialdiko egoeretan, taldeak sortzea eta dinamizatzea.	1124. Talde-dinamizazioa
UC1867_2: Talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta.	1124. Talde-dinamizazioa
UC1870_3: Begirale-taldeak sortzea, eta haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea.	
UC1431_3: Kultura-arloko arduradunek egindako kultura-programazioak programatzea, garatzea eta ebaluatzea.	1125. Kultura-animazioa eta -kudeaketa
UC1432_3: Kultura-elkarteen sareekin programatzea eta dinamizatzea kultura-animazioko proiektuak.	
UC1433_3: Kultura-komunikazioko eta marketineko ekintzak garatzea.	
UC1091_3: Animazio turistikoko sailak kudeatzea.	1126. Animazio turistikoa
UC1092_3: Animazio turistikoko proiektuak diseinatzea, sustatzea eta ebaluatzea.	
UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta hiritarren parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea.	0344. Gizartean parte hartzeko metodologia
UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea.	
UC1026_3: Generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.	
UC1020_3: Gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariek eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta.	1128. Gizarte-garapena
UC1021_3: Gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan hiritarren parte-hartzea sustatzea.	
UC1023_3: Elkarteehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea.	
UC1025_3: Gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzea, bitartekaritza-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.	
UC1874_3: Gazteentzako informazio interesgarriko zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea.	1129. Gazteentzako informazioa
UC1875_3: Gazteentzako informazioa dinamizatzeke ekintzak antolatzea eta kudeatzea.	
UC1876_3: Hezkuntza ez-formalaren esparruan, gazteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-ekintzak antolatzea.	1130. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin

Oharra: Heziketa-ziklo honetan matrikulatutako pertsonen titularen barnean hartzen diren kompetentzia-atal guztiak 1224/2009 Errege Dekretuaren arabera egiaztatu badituzte –1224/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, lan-esperientziaren bitartez eskuratutako lanbide-kompetentziak onartzeari buruzkoa–, honako lanbide-modulu hau izango dute baliozkotuta: «1131. Animazio soziokulturalaren testuingurua».

2. atala.– Egiaztatzeari begira titulu honetako lanbide-moduluei dagozkien kompetentzia-atalak honako hauek dira:

Lanbide Modulua	Kompetentzia Atala
1123. Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak	UC1868_2: aisialdiko animazioko hezkuntza-teknikak eta -baliabideak erabiltzea. UC1869_3: hezkuntza-aisialdiko proiektuak planifikatzea, antolatzea, kudeatzea eta ebaluatzea.
1124. Talde-dinamizazioa	UC1867_2: talde-prozesuetan jardutea, haurtzaroaren eta gaztaroaren portaera eta eboluzio-ezaugarriak aintzat hartuta. UC1870_3: begirale-taldeak sortzea, eta haurrentzako eta gazteentzako aisialdiko hezkuntza-proiektuetan talde horiek dinamizatzea eta gainbegiratzea. UC1093_3: aisialdiko egoeretan, taldeak sortzea eta dinamizatzea.
1125. Kultura-animazioa eta -kudeaketa	UC1431_3: kultura-arloko arduradunek egindako kultura-programazioak programatzea, garatzea eta ebaluatzea. UC1432_3: kultura-elkarteen sareekin programatzea eta dinamizatzea kultura-animazioko proiektuak. UC1433_3: kultura-komunikazioko eta marketineko ekintzak garatzea.
1126. Animazio turistikoa	UC1091_3: animazio turistikoko sailak kudeatzea. UC1092_3: animazio turistikoko proiektuak diseinatzea, sustatzea eta ebaluatzea.
0344. Gizartean parte hartzeko metodologia	UC1022_3: gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta hiritarren parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: generoaren ikuspegia txertatzea gizartean parte hartzeko proiektuetan.
1128. Gizarte-garapena	UC1020_3: gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariek eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta. UC1021_3: gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan hiritarren parte-hartzea sustatzea. UC1023_3: elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea. UC1025_3: Gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzean, bitartekaritza-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.
1129. Gazteentzako informazioa	UC1874_3: gazteentzako informazio interesgarriko zerbitzuak antolatzea eta kudeatzea. UC1875_3: gazteentzako informazioa dinamizatzeke ekintzak antolatzea eta kudeatzea.
1130. Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea gazteekin	UC1876_3: hezkuntza ez-formalaren esparruan, gazteei zuzendutako gizarte- eta hezkuntza-ekintzak antolatzea.